

PATRI URKIZU

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA



Patri Urkizu

Portada: Anton Abbadia bere morroi Abdularekin eta beste etiopiarrekin.
Koadro desagertua.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

:

*Zeruko izarren bidia nik baneki,
Han niro ene maite gaztia xüxen khausi,
Bena gaur jagoiti nik hura ez ikbusi.
(Zuberoako herri kanta)*

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

MILA ZORTZIREHUN eta hogeita hamazazpiko urriaren lehenean Antonek Marseillan Nôtre—Dame—de—la—Garde—ko kaperan partitzeko borondateak sutuki aurkeztu zizkion zeruetako Ama Birjinari, eta dorreko terrazara igoz Estaque penintsula eta Canaille itsas—buru artean irekitzen den hiriar azken soa eman. Ehun eta hirurogei metro garai den kaxko honetatik ikusten zituen Belsunce karrikan gaindi merkatariak eta jende multzoak xinaurrien gisa batetik bestera mugitzen. Itsaso zabaletik porturatzen ziren ontziak hiriaren bihotzean barneratzen baratxe—baratxe. Judu, armeniar, greziar, italiar eta afrikarren auzoak, hizkera ezberdinetan kalakari, beraz, denda eta tabernetan, non—nahi entzun zitekeen gisa honetako esan arrunta, *bemen denak gara arrotzak*.

Egun berean bapore batek Frantziatik urrun eraman zuen. Zerua urdin, garbi eta aratz. Itsasoa ispilu. Arratsarekin batera ezkutatu zitzaion atzean uzten zuen hiri xuria eta une honetan bere lurra abandonatzen duen gizonari sortzen ohi zaion damuaren koska eta ziztada labur baten antzekoa sentitu zuen barne—muinen sakonetan. Baina lipar batez soilik iraun zuen.

Mediterraneoko itsas bidai hau, Brasilgoa ez bezala, guztiz atsegina gertatu zitzaion. Baporeko gelak eta egoitzak erosoak ziren eta ongi apailatuak. Bidaiarien giza taldea ttipia baina hauta eta arraia. Egipton garai hartan kontsul jenerala gisa zegoen Charles Cochelet jauna itsasontzian zihoan eta luze elkarrizketatu ziren. Solas bizi—bizia zuen kontsulak. Irudimen eta jakituri handiz hornitua, bere hitzarekin batera bai Europan, bai Asian eta bai Afrikan barrena zebilen Anton plazerez—plazer eta gustorasko. Frantses inperioaren leku ezberdin eta paraje miresgarriez mintzo zitzaion, ia orotan ibilia baitzen Mendebaldetik Ekialderaino, bai bidaiari arrunt gisa, bai kontsul modura frantsesen interesak zaintzen.

Patri Urkizu

Xake jokoak Siria aldera zihoan Estatu Nagusiko ofiziale bat ezarri zion aurrez—aurre. Halaber Esmirnan bizi zen merkatari ingeles batekin jokatu zituen zenbait partida eta bitartean Indiako gora beherez mintzatu ziren. Honen Konpainiak Gange eta Indo ibaiaren arteko berrogei miloi biztanleko lurraldeak gobernatzen zituen etekin onik atereaz.

Livornon, 1600. urte inguruan Cossimo Lehenak eraiki kaletan, Civita—Vecchian, Napoleon Egiptoratu zenean ukitu portuan, eta Napolin gelditu ziren, baina azken honetara arribaturik ezina izan zitzairen desenbarkatzea, kolera izurriteaz joa jarraitzen baitzuen Marseillako hiriak eta Italiako Gobernuak erabakia agindu batez kutsagarria zitekeenez eritasuna, bertatik zetozen ontzi guztietako bidaiariei lehorrera jaisten ez uztea.

Napoli hiriaren aurrez—aurre oraino gauez zerura sugarrak botatzen jarraitzen duen Vesubio sumendia ageri da. Hura bai ikuspegi miresgarria! Baina guztiz haserre dagoenean beldurgarria ere dateke, bere magaletan diren herri anitz baitu estali behin baino gehiagotan buztin lohitsu eta hauts kiskalgarriez.

Stromboli uharteko sumendiak ere bizirik dirau eta ingurutik iragaterakoan ikus zituzkeen Antonek zeru izarztatuan suzko harriak igotzen eta erortzerakoan eguratsean itzaltzen. Aldamenetik igaratean antzinako pelegrinek uste baitzuten han zegoela Purgatorioko sarrera, *De Profundis*, otoitza belaunikaturik ahots goraz ematen ohi zuten. Messina eta Reggio hirien arteko hertsiduran barrena egunez pasatu ziren branka beti hegoaldeari buruz zuzendurik.

Kosta garai eta harkaitsuz inguratua duen Malta uhartera iritsitakoan lehorrera jaitsi ziren. Benetan zoragarria da girstinoen eraikuntza hau. Garai batean izaeraz irla eta gaztelu batera den honetan zuten beren kokaleku nagusia erdi—soldadu erdi—fraide ausart haiek, mendetan zehar geldiarazi zituztenak Ekialde eta Mendebaldeko musulmanen erasoak.

Espania eta Alemaniako enperadorea izandako Karlos Vak Maltako zaldunei, hots, Joanes Jerusalemeko ordenako fraideei oparitu zien uhartea,

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Palestinaratzen ziren erromesen zaintzeari jarrai ziezaioten. Mila bostehun eta hirurogeita hamaikan turkoa garaitzen lagundu zuten, eta 1798an Napoleonek hartu, askatu eta gobernatu zuen denbora laburrez berriro ingelesek bereganatu arte.

Lehen aldiz konprenitu ahal izan zuen Valettako parte zaharrea barrena, etxeek irudi xarmant eta guztiz erakargarriak sortzen zituzten angelu zuzenetan ebaki karriketan gaindi, nola lezaketen lilura paraje hauek bidaiaria sorterrria, adiskideak, familia ahanzteraino. Lehen ikuspegi eta iritziarren arabera bisitariari Malta uharteko egoitzen arkitektura eta eraikuntza ez zeritzon ez frantsesa, ez italiarra, ez eta arabiarra, baizik eta beste zerbait, guztiz ezberdina. estilo ezberdinetako saltsa—maltsa moduko bat, mendebaldeko seriotasun eta egonkortasunari ekialdeari darizkion mugimendu, ukitu eta ttantta arinak erantsirik.

Bertako Eliza nagusia, noski, bisitatu zuen. Hango hilobiak, marmolezko mosaikoz eraiki gudari ospetsuen hilobiak, armarriz irudikatuak eta harri eder preziosez hornituak zeuden. Haien pean zeutzaten hauts bilakaturik hainbat mendetako zaldun harrokeriak, gizon handienen fatua ere hori baita, azken finean, ezerezean amaitzea.

Malta osoa zaldun haien oihartzunez eta oroitzapenez beterik eta jantzirik dagoen arren, Abbadiak bisitatu zuenean aduanetako zergez bere tresor—kutzak ongiasko betetzen zituen Ingalaterraren menpe zirauen. Antonen pasaia garaian Komunaren Ganbarak igorritako komisari bat zegoen uhartean herritarren eskaera, kexu eta doluminak entzuten, zegokien moduan erantzuna emateko. Dena den, Ingalaterrak, eskabide batzuei amore ematen bazien, justu kupeletik isur zitezkeen tanta eta xorta eskas batzuk besterik ez ziren izanen egarriz ito ez zitezkeen, eta ez zuen inolaz ere antzinako legediaren arabera bertakoek zeukaten burujabetza, askatasun osoa beraien esku utziko.

Patri Urkizu

Beste portu benetan atsegin eta ederra, aroa on denean, Syros da. Zikladetako Uhartetako multzoan dago kokatua. Atenasetik hurbil, bertan Atenas, Konstantinopla eta Alexandriako itsasontziak atseden hartzen dute. Arrada, ordea, irekia du eta arriskuz betea, itsasoa haserre dabilenean gogorki astintzen baitute uhinek, eta ez da batere eroso transbordoak egiteko. Antonen bistaurrean ikatzez beteriko itsasontzi bat ondoratu zen baga handi batzuen eraginez. Pausaleku eta geldione da beraz, eta hauek laburrak ohi dira. Haizeak baretu eta kalma etorri zenean itsasora abiatu ziren berriro, Egiptori buruz uharte harkaitz artetarik.

Alexandriara partiadaren ondorengo bigarren igandean iritsi ziren. Fenelonek bere *Telemake* eleberrian pintatzen duen bezalakoa agertu zitzaion. Itsasoa bezain behe. Lehenik gisu—labe batzuetarik zerura altxatzen zihoan ke xuri batez ohartu ziren, eta geroago itsas—ontzien masta—basoaz. Hiria ez zen ia ikusten portu barnean sartu arte, eta oharkabean aurrez—aurre hantxe aingurak boteak Mohamet—Aliren flota ederra. Jakina den bezala, 1819az geroz bere armada handiari esker bereganatu nahi izan zuen otomandarren inperio osoa eta erreforma ugari hasi, baina azkenean Britainia Handiak eta sultanak errenditzea lortu zuten trukean Egiptoko bizerrege izendatuz.

Arjeliako espedizioa Claudel mariskalarekin jada burutua, Antonen anaia Arnauld zain zegoen Alexandrian, eta alokaturik zeukan etxe batera joan ziren atseden hartzera.

Ostaturako bidean, karriketean gaindi mutil koxkorrek inguratzen zituzten, eta eskua luzatuz esaten:

— Baxix, baxix!

Alegia, limosnatxo bat faborez, bere arabiera eta komentzimendu dohainak frogatu nahian Antonek erantzuten zien:

— Mafix, mafix!

Hots, ez zuela deusik, baina anaiak komentzitu zuen hobe zela sos batzuek ematea bati, bakean utz zitzaten, hark uxatuko baitzuten bestak.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Biharamunean moezinaren otoitzekin batera esnatu ziren goizean goiz, eta giristino otoitzak burutu zituen, Abisinietao paraje guztietan katolikotasuna ez izan arren osorik benetakoa, lurralde haietan giristinotasuna zelarik dotrina nagusia gauzez lo lasaiago egingo zuen kontsolamenduarekin.

Kontatu zion Arnould—ek bere bidaian izandako arazoak, hala nola Grezian zegoelarik hainbestearainoko maitasuna adierazten zioten frantsesa zen denarekiko ezen bere sosez ere maitemindu ziren, eta Alexandriara egoera tamalgarrian ia larrutsik iritsi zen. Patxa bisitatu zuenean, diban batean erdi etzanda errezibitu zuen xibuka erreaz, eta Artin—Bey interpretearen bitartez esplikatu zizkion Etiopiarako asmoak.

Dakikegunez, *No* deitzen zen antzina Alexandria, gero Alexandro mazedoniarrek, Egiptoaz jabetu zelarik hiri zaharra zabaldu eta bere izena eman zion arte. Demetrius Phalereus filosofo atenastarrak zuzentzen zuen Biblioteka ospetsuaz ez zen deus gelditzen, hiriarekin batera erre baitzituzten bertako sei ehun mila eskuizkribu, musulmanen bizitza zuzentzeko Korana aski zelako. Hura bai izan zela galera tamalgarria, antzinatearen hainbat eta hainbat eraikuntza eder, sakon eta jakintsu hala gizon fanatiko zenbaiten burugabekeria basatiaz hondatu eta galdu baitziren betirako.

Alexandriatik El Kairorako bidea asto, mando eta gameluen bizkarrean egiten ohi zen, edota *jerma* deitu barku ttipitan, Mohammed—Aly—k bi hiri hauen artean irekiarazi zuen Mabmurdiak kanalean zehar. Lehenik, ordea, Rosetta bisitatu zuten.

Hemen Abu Hassan—en lorategi ederretarik ibili ziren. Kokondo, platanondo, muxikondo, zitrondo, Arabiako jasminak eta Europan ezagutzen ez ziren zuhaitz eta landare urrintsuen artean. Bide xidorrak errekatxo eta kanalez zeharkatuak zeuden, eta zenbait lekutan Zuberoako paraje basen antza zuen. Hemen, alabaina, zuhaitz eta loreak ematen zuten itzalagatik eta usainagatik landatzen zituzten, eta ez eman zezaketen zur edo fruituengatik.

Patri Urkizu

Abbadia anaiek ontzitto bat hautatu zuten eta fardel, baliza eta ekipamendu guztiak bertan ipini ondoren, bi egunen buruan zenbait jakintsuk Munduko Zazpi Eraikuntza Miresgarrienen artean dauzkaten Piramide famatuak begiztatu eta pixkat geroago iritsi ziren antzina *Gion* deitzen zen eta orain El Kairo izeneko hirira.

Lehenik Botta jaun kontsularengana joan ziren bisitan, beren asmoen adieraztera eta aholku eske.

Asto biren gainean bazihoazen Abbadia anaiak El Kairon barrena, hiriko murrak igaro ondoren kale hertsietan gaindi. Hemen sentitu zuen lehen aldiz Antonek europear zibilizazioaren hutsunea. Dena zen bizi—bizia eta higi—higia karrketan. Han nahasten ziren konfunditu gabe Patxaren soldadua eta inoiz militar diziplinarik onartu gabekoa, gerriko lodian puinala eta pistolak zintzilik zeramana. El Kairoko musulmana bere burukoihal zuzenaz eta txilaba luzeaz jantzirik, judua buruko beltzaz eta kopetetik zintzilik ilaje barrazkilatuak hornigarri, katolikoa buruko xuri ongi plegatuaz eta tintontzia gerrian, zeinek adierazten zuen jakintsuen mailakoa zela, eta berdintsu jazten zuten armeniarrek, koptoak beren sudur zabal eta ezpain lodiz ezin nahasiak, Esfinjearen pareko, kaba edo konfiantzazko morroiak turkoz jantziak eta mamelukoen gisara setazko gerritik sable uztaiduna zintzilik...

Denak ziruditen kronika zaharretarik ateratako pertsonaiak, eta Abbadiatarrek erdi aroko hiri batean erabat murgildurik zeudela ohartu ziren. Ofizio ezberdinetako jendeak kale eta gune berdinetan bizi ziren, eta mundu guzti haren soberanoaren indarraren poderioa guztiz ahalduna nabaritzen zen arren, oso gutxitan ausartzen zen han erabiltzera.

Hirurehun dorre ikus zitezkeen masta oihan baten antzera zitadelatik begiratuta El Kairo hirian. Karrika guztiak zeuden mundu zalapartari batez beteak. Astoak ez ezik, ez ziren falta beduinoek zuzenduriko gameluak, ez eta tximuak dantzari edozein zokotan beren zaindarien aldamenean. Hamaika zoko zakuz beteta eta hamaika mahai gaiez blai eta dena salgai.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Ikuskizunik liluragarriena, ordea, iritsi—berri batentzat begitartea estali gabe, ilajea aske eta titiak airean dantzan ari ziren *raghuaz* deitu neskatxen mugimendu lizunkeriaz beteak ziratekeen. Batzar nagusian halaber, mila denda ezberdin topa zitezkeen eta bertan alfonbrak eta tapizak, zilar eta urretegiak, talabartegi eta zapatategiak, perfume eta usaindegiak, kolore eta usain orotariko espezieriak, oihaltegiak eta jazkindegiak inguru—minguru.

Saltzaileek ez zuten bakean uzten arrotzik zerbait erosi arte, baina ohiturari jarraiki gauza guztiak beren prezioaren balioa erdira jaits zitezkeen saiatu eta pazientzia apur bat hartuz gero, gainera ez ziren pozik gelditzen errazegi saltzen bazuen lehen aldiz emandako prezioan, eta gauza bakoitza eskaintzean haren balioa goستن bederen ordu laurdeneko solasa botatzen zuten. Antonek esklabo merkatuan gaztetxo eder eta malerus bati galdetu zion, nolaz iritsia zen egoera hartara eta honek erantzun zion:

— Amak egur bila basora afariaren prestatzeko bidali ninduen, eta abarrak biltzen ari nintzela zuhaitz tartean ezkutaturik eta ikusi ez nituen gizon batzuek ahatapatu, lotu eta berekin eraman ninduten. Geroztik behin eta berriro, ez dakit zenbat aldiz saldua izan naizen. Eros nazazu eta zerbituko zaitut ontsa.

Ez zitzaien egoki iruditu abbadiatarrei eta bidaiarako beste erosketa mota zenbait egindakoan, atsedean hartzera ostatura joan ziren eta hemen belaunikoak gurutzaturik, ohitura hartu—asmoz arabiar poesia—liburu bat eskuan, eta arabiera—frantsesa hiztegia aldamenean irakurtzen hasi zen:

Alda zaitetz maiꝛ egoitzaz, biꝛiaren ezꝛtia aldaketan baitatzā... Urtegi batean geldirik dagoenean laster usteltzen da ura, eta hondar hobi baten gainetik igarotzen bada aratz eta garbi ikusiko duꝛu, baina gelditzen den une berberetik ozpin—ozpina bilakatzen da.

Oihanetik ez balitz lehoia higituko nola harrapatuko luke bere ebizakia?

Fletxa arkutik ez bada urruntzen nola da helmugara iritsiko?

Patri Urkizu

*Mebatzze barnean datzan urre—hautsa lastoaren parekoa da eta aloesa bere
sorterrian zur arruntaren antzekoa.*

Euria ari zuenean, benetako jaia eta bozkarioa zen kairotar pobreen artean. Umeak karriketan lohiz beterik zebiltzan putzutuan erdi larrutsik sartu eta plaxta—plaxta apo beltxaranak bailiran ateratzen ziren, oihukatzen zuten bitartean, *Nil al—Mubarak, Nil al—Mubarak!* Alegia, bedeinkatua dadila Nilo. Nilo ibaia gizendurik datorrenean eta urak garaiak, ertzetik lautadan ageri dira ostertzerainoko baratz urrunak. Palmondoak, sikomorak, arroza soroak non—nahi. Oro jendez beterik, eta krokodilo batzuek ere bai ibai—ertzeko zelaietan etzanda eguzkitan.

Egun batez Lur—Sainduetako fraideen komentura joanak zirelarik abbadiatarrak astiari bere etekina ateratzeko asmotan arabiera hizkuntzako irakasle baten bila, abade nagusiak esan zien:

— Begira, hemen dago Giuseppe Sapeto aita, Lazaristen Kongregaziokoa, Sirian arabea ikasia da eta agian aholku onen bat emango dizue.

Sapeto gaztea zen eta sutsua, benetako misiolari katolikoa. Kontatu ziotenean Etiopiarako bidea egiteko asmotan zebiltzala, nola antzina ere beste italiarrak 1400. urte inguruan Antonio Bartoli merkatari fiorentinoa eta Pietro Rambulo sizilianoa paraje ezezagun haietan ibili izan ziren. Gero Berry—ko dukeak napolitano, frantses eta katalan batez osaturiko lehen enbaxada igorri zuen lurralde urrun haietara. Bi fraide etiopiarrek parte hartu zutela Firenze—ko kontzilioan 1441ean, baina ez zetozela zuzenean Etiopiatik Jerusalemeko egoitzatik baizik. Ignazius Loiolakoak, Jesusen konpainiaren sortzaileak, nahi izan zuela ere bertara joan, baina berari ezina gertatu bazitzaion konpainiako jarraitzaileek eutsi ziotela ideari eta egia bilakatu fundatzailearen asmoa. Pedro Paez misiolari argiak lortu zuela Susenios—en garaian XVII. mende hasieran honek Erromako garaitasuna onar zezan, baina Alfontso Mendez—ek indarra eta bortxa erlijioaren zabalkunderako erabili zuenez *Negusa* behartua aurkitu

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

zen bere semeagan abdikatzera eta Fasilides enperadoreak bidali eta desterratu zituela betirako lurralde haietarik misiolariak, hauetariko bi kaputxinok Agathange Vendôme—koak eta Cassien Nantes—ekoak martirioa sufritu zutelarik Gondar—en. Bazela bi mende jesuitak eta frantziskotarrak bertatik bidali zituztenetik, eta Lurralde Garaietako legediak heriotza zigorpean debekatzen zituela misiolariak han sartzetik, paganismoa eta fanatismorik krudelenetarikoa jabeturik zirela lehen Kristorena zen erresuma hartan...

Istorioak berehala piztu eta kilikatu zuen Sapetorengan martirioaren esperantza eta bere burua bidaide izateko fite eskaini zuen. Beraz, pentsatu zuten Abbadia anaiek bandera eta gurutzea batera, zientzia eta erlijioa elkarturik joan zitezkeela egoki.

Arnauld—ek eta Antonek hautatua zuten negua bidaia hasteko une egoki gisara, baratxe—baratxe ohitzen joatearren beroetara. Portugesekin gerratean ibilia zen Sapetto, El Kairon erdi—galdurik aurkitu zuten ingeles bat. Ingelesa mister Richards deitzen zen eta topatu zutenean islamera konbertitu nahi zuten bi musulmanengandik ihes ezin eginik zebilen. Hemen alokaturiko Ali izeneko morroia, etxeko betiko zerbitzari Domingo, Arnauld eta Antonek osatzen zuten espedizioa.

Beraz, Nilo ibaian goiti abiatu ziren, 1837ko abenduaren 25ean Niloko uretarik eskuz hartu eta ahatara edan ondoren, begiak itxiz eta asmo berezi bat adieraziz, alegia, ur haien etorki misteriotsuak aurkitzea.

Bidean utzi zuten bi mila eta seihun urte Kristo aitzin eraiki ziren Keops, Kefren eta Mikerinosen Gizeh—eko piramideak eta haiekin esfinje ospetsua, hots, erdi—lehoi, erdi—gizaki den harrizko irudi digantea. Ezker—eskuin Memphis, Beni—Hasam, Tell el—Amarna, Assiout, Sohag, Abidos eta mila zazpiehun eta hirurogeita zortzian Bruce iritsi zen bezala Qeneh—en sartu ziren. Hemendik inguruko Luksorreko tresurak ikustera joan ziren. Emile Prisse d’Avennes, garai hartan Edris Effendi izenpean estaltzen zen egiptologo

frantsesaren jauregian ere izan zitezkeen, kasu. Turkiar gisara jantzi arren hau eta abadiatarrak arabiarren modura, berehala ohartuko ziren frantsesak zirela hirurak, eta bere bizitza gora beherak kontatuko zizkien Effendik kafea hartzen zuten bitartean tapiz ederrez hornituriko sala handi batean almoadetan erdi—etzanik

Jaiotzez Belgikako mugan dagoen Avesnes—sur—Helve herrikoa zen. Ingeniaritza eta arkitektura ikasia, Greziako independentzia gerlan Lord Byron—ekin parte hartua, Mehemet—Ali—ren zerbitzuan izandakoa, eta Damietako defentsa eraikuntzak zuzentzen izan zelarik hieroglifikoak aztertzen aditua. Ingelesa eta arabiera ere oso ongi menderatzen zituen.

Syout—en zelarik bertako gobernadoreak preso hartu zuen, orduan frantsesa zela erantzun zion, baina Patxak beste honakoa:

— Musulman bilakatu haizen une beretik hire nazionalitateari uko egin diok.

Eta makilakada mordoa jasatera zigortu zuen. Orduz gero, erromesak bezala, batetik bestera ibilia zen, ikertze miaketak eginez, tenpluak irudikatuz, ingeniariari laguntza eskainiz, eta gero eta gorroto handiagoz begiratu ingelesak. Ondasun jabetzaz oso ideia bitxiak zituen, zeren eta ona gertatu omen zitzaion abentura batez kontatu zien:

Jainkoek eta jainkosek hala nabirik nonbait, edota fatu urrikalgabeek, auskalo nork dakien, ez naiñ nehoiz zoriontsu izan. Halere behin Fortunak ia ia bere eri zoriemaileez ukitu ninduen. Istripu triste batek eragotzi zuen hori, ordea. Asmatu nuen ekintza guztiz erraza eta segurua zen. Indietako postariak Alexandrian desenbarkatzen zuen hileru bi aldiz, eta hogeiren bat gerlari barbarin zaindari zuela berrogeita hamar gameluen gainean iragaiten zuen desertua Suezerraino. Ingalaterrako postak beti zeramatzan berekin ez bakarrik gutunak, baiñik eta balio mugagabeko urre mordoa. Nik ongi ezagutzen nuen Suez aldeko basamortua, eta nere

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

kolpearen detaile guztiak xehetasun handiz prestatu nituen. Mapa batean nituen ongi seinalatuak putzu guztiak, baina lagun batzuek behar nituen ekintza onik burutzeko. X, Y eta Z adiskideei, — atzerritarren koloniako izen ezagun batzuek aipatu zizkien —, plangintza adierazi nien eta onartu zuten prozedura modua. Desertuan ezkutatuko ginen, eta agertu bezain laster espedizioako lehen lauak buruan tirokatuko genituen astirik izanen ez zutelarik oiene esateko ez tiroz erantzuteko, ez eta deusetarako. Barbarinak ere erasotuko genituen eta berehala gameluen jabe eginen. Zakuak ireki eta hantxe bertan su emango genien banku—nota, agindu eta letra—kanbio guztiei. Urre eta zilarrak parte berdinetan banatuko eta, gamelu aski izanen baikenuen, bakoitzak habitua ez batera bere bidea hartuko zuen. Nere asmoa EtioPIAN sartzea zen, eta hemendik, susmoak desegitearren Londresera itzuliko nintzen, Negus—aren seinalea eramanez zuten urre—zilar—lingoteekin. Dena prest zegoen eta nerekin baneukan mahari lasterkari bat ere, gai zena korrika, gelditu eta atsedetik hartu gabe berrogeita hamar kilometro ibiltzeko. Arrakasta izanen genuen, ez zegoen neholako dudarik, ez zalantzarik. Baina badakizue zer eragin zidan porrota? Zoratzeko gauza da eta Fortuna jainkosa ez sinesteko modukoa. Bizia zen nere etxean andere antzu, txatxu eta musulman bat bere egoeraz lotsa zena eta inguruko emagin, sorgin eta albaitero guztien aholkuen bila zebilena eten gabe.

Harmailetan, pasiloetan, sala guztietan intxaurrak ipintzen zituen, ezen esana zioten andere antzua haurdun bilakatzen zela ustekabeaz gizon arrotzak intxaurren bat zanpatzen eta txikitzen baldin bazuen. Arratsalde batez, ekintza egitera gindoa zenaren bezperan, hain zuzen, eskailerak jaisterakoan intxaur bat zanpatu nuen, ez zen hautsi baina bai ni muturrez aurrera eta zangoz gora erori eta erorketaren eraginez txurnioa bihurtu zitzaidan. Sei astetan ohean etzanda pasatu behar izan nuen, intxaurrak,

Patri Urkizu

andere antzuak, deabruak eta zeruak madarikatuz, eta batez ere nere fatu beltza. Ekintzak pott egin zuen, beraz, eta nere lagunak eta neuk erabaki genuen saio berririk ez egitea, ez tentatzea berriro Fortuna jainkosa, zenbait gauza ez baitira bi aldiz entseatu behar. Nere amorrazioak ez zuen mugarik izan, noski, Times berripaperean irakurri nuenean erasotu behar genituen Indietako postak 280.000 libera esterlin urretan, eta zazpi miloi libera zeramatzala. Sekulan gehiago ez naiz kontsolatu izan ahal galera hartaz, pentsatuz zein nolako bizimodua neramakeen neregianatu izan ahal banitu sos haiek. Zazpi miloi intxaur kaxkar alu batek galaraztea ere!

...

Kontsola zitekeen Effendi jauna, ordea, bere miaketetan ebatsi tresuren salmentetan lortutakoarekin eta Nilo ibaian zeukan bidaiari—ontziak ematen zionarekin poltsikoak ongi hornituak baitzituen. Gizonaren urre—goseak ez du, tamalez, mugarik. Aholku gisara esan zien:

— Har ezazue hau beti kontutan. Non fida han gal. Ez zaitezela inoiz musulmanez fida. Giristinoak zarete eta beti izango dute bihotz barnean zerbait fedegabeei ezkutatzeko.

Qenah—eko herria abenduaren hogeita bostean utzi zuten astelehenez. Beraz, gameluen konkor—bizkar gainera igo eta desertuan sartu ziren azken palmondoak agurtuz.

Egunero hamarren bat ordu ibili ondoren ostiralean ilunabarrarekin Qusair—eko hondartzara iritsi ziren, denda Itsas Gorriaren hegian eraiki zutelarik.

Arabeek hainbeste maite dute gamelua, beronen ekintza guztiak irudimenez eta fantasiaz janzten dituztela. Diotenez, gauza omen da, egun t´erdi lasterka ibiltzeko atsedetik hartu gabe, orduan batez beste hamar kilometro ibiliz. Frantzian askotan entzuna zuen Antonek gameluak oso apalak zirela. Apalak esatean leloak zirela adierazi nahi bada, ez dago dudarik hala direla, baina bestalde zaldia edo elefantea bezain hezkaitz dira. Ez dio axola gameluari

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

norbait bere konkorr gainean daraman ala ez, martxan jarriez gero zuzen baitihoa beti, bidez aldatzeko gai ez delako bakarrik, eta, beraz, elorriren edo hosto berderen bat topatzen badu bidertzean hara zuzenduko ditu bere zango luze, oker eta konkordunak, hain baita mugatua bere norabidea. Ez du inoiz ahaleginik burutuko jaits zaitezzen bere bizkar gainetik, duen zentzutik at baitago hau, eta erortzen bazara ez da, noski, geldituko, ez eta batere arduratuko. Ikusten duen lehenak har dezake bere nagusi bilakatuz modurik errazenean. Norbait gaineratzen zaionean soilik ohartuko da gainean daramala, eta bere suge antzeko lepoak masail izugarriak irekiko ditu hozkatu nahiz eta orro ikaragarri bat jaulkiren du pairatzen duen injustizi modukoaz kexatzeko edo. Hitz batez esateko, ez da etxe aberea, basapizti beldurgarria baizik, baina lehen lelokeriak apaldu zaizkionean pairakorra da guztiz eta daitekeen animaliarik zozoena. Halere, abere guztiak bezala, gidariak gaizki tratatzen badu izugarri krudela bilaka daiteke kasu honetan bezala. Hona gertaturikoa.

Behin hamalauren bat urte zituen gameluzain gazteak makila luze eta finez bortizki astintzen zuen ezker—eskuin azpikoa, noiznahi ohiko bidetik ateratzen zitzaiolako. Gameluak bururatu zuen ez zuela merezi gaztigu eta pairamendu hura, eta mendeku bat pentsatu edo zuen. Egun batzuk beranduago bazetorren gameluzain berarekin oraingoan zamarik gabe. Ikusi zuenean ez zettorrela inor ostertzean, batera eta bestera ongi behatu ondoren bakarrik zegoelakoan, eman zuen urrats bat aitzina, harrapatu zuen hortz tartean gidari gazte gizagaixoa burutik eta airera bota zuen ahalik urrunena behin eta berriro akabatu arte. Bere hilketaz aseturik, hartu zuen berriro bidea harro—harro deus gertatu izan ez balitz bezala. Tamalez jendea urrunegi zegoen laguntzarik gidariari eskaini ahal izateko, baina iritsi zirenean gamelu mendekari harengana lepoa moztu zioten, mendekurik sekula gehiago pentsatu edota egin ez zezan, haren gorputik balia zitezkeen larru, haragi, sabeleko urzahagiak hartuz eta beste guztia arrano eta putreentzat utziz.

Patri Urkizu

Qusair—era iritsi zirelarik, beraz, berehala lehiatu ziren txabola on eta zabal bat alokatzen. Bere barnean berrogeita hamarren bat marrokiar zituen denda edota *Baghlé* 'sabela' deitu baten atzeko alde alai suertatu zitzaien.

Belak prestatzen ari zirela txabolattoan sartu nahi izan zuten La Meccako pelegriek, eta eztabaida baten ondoren zeruak eta Allah—ren izena aipatzen zuen magrebiar batek Arnauld—i bere maginan zeraman ezpata kendu zion eta burura kolpea botatzen hasi zitzaionean Domingok besotik heldu eta ezpata utz zezan lortu zuen. Magrebiar guztiak oihuka eta garrasika hasi ziren orduan beren maginetarik alfanje izeneko ezpata makurrak atereaz. Arnauld. eta laguntzen zituen gazte inglesa, Richards. jauna, berehala desarmaturik gelditu ziren. Bazirudien dena odol putzu batean amaitzera zihoala berehala, zeren libre eta armaturik zen bakarra, Anton, bere gaztetasunaren harroan prest zegoen tiroz akabatzeko beretariko bat erasotzen zuen lehena. Alabaina beraiekin zegoen Sapeto misiolaria diplomazia handiz mintzatu zitzaien konprenitzeko moduko arabez errabia bizi ziren magrebiar haiei eta baretu egin ziren, aldameneko itsasuntzi batera igo, bertatik geldirik mantendu, eta Qusair—eko gobernariari abisua pasatzen zioten bitartean. Hau berehala agertu zen. Husein—Agha—k, turkiar guztien antzera, galtza zabal, oihal koloreztatua buruan eta sudur luzea bezainbat odol—hotz eta kirio orekatu frogatu zituen. Marrokiar asalatuari deusere esan gabe masaileko bat eman zion lehenik eta, zakur fedegabea, entzun arren itsasontzira igo zen lasaiasko, ondoren denak bere dibanaren ingurura gonbidatu zituelarik.

Hasi zen, beraz, abbadiatarren kexuak eragindako epaia. Husein—Agha erromesei zuzendu zitzaien solas luze batean, funtsean esanez, ez zekiela zer egiten zuten han, eta gaineratuz frantses zuriak beraiek baino handiagoak zirela.

— Haundiagoak? — galdetu zuen marrokiar batek—.

— Haundiago direla, esan dut, —ihardetsi zien gobernadoreak—, zazpi urte luzez beraiekin bizi izan naiz eta badakit ongi zer diodan.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Hau zioen bitartean bihotz—eriak elkarrenganatzten zituen eta gero marrokiarregana hurbilduz esan zien:

— Bada zuen artean ezpata atera ez duen gizonari maginatik kentzea zilegiztatzen duen legerik ?

— Ez, — erantzun zuen gizon samaldak—.

— Beraz hori egin duenak gaizki egin du.

Juje batengan baietza gogo hark harri eta zur utzi zuen Anton.

— Bai, bai, gaizki egin du, — erantzun zuten pelegriek—.

— Beraz, zeureon hitzek kondenatzen zaituzte.

— Nik ez diot alfanjea kendu.

Esan zuen Fez hirian jaioa zen Gondor delako batek, honela deitzen baitzen, baina lekuko guztiek hantxe bertan gezurtatu zuten.

— Orain, —esan zuen gobernadoreak—, zein da aukeratzen duzuen zigorra?

— Ehun kolpe.

Une honetan Elijor izeneko Bethleengo kristaua eta frantses ajentea zena mintzatu zen:

— Barkaidazue, baina gizon hau marrokiarra izanik frantses pasaportea darama eta ezin zaio zigorrik pairarazi.

Izpiritu ahuleziatzat jo zuten abadiatarrek Elioren on nahi hura eta alde batera eramanda komentzitu nahiz mintzatu zitzaioten esanez gobernadorea ohoratuko zuela onartzen bazuen zigor hura ezartzea.

Ez balitz frantsesen menpe dagoelako, — esan zuen gobernadoreak—, bostehun kolpez zigortzea aginduko nuke gustorasko. Memento honetan zigor emalea aitzinatu zen, eta ozenki adierazi zuen pena izanen litzatekeela halako gizon gaiztoa ez zigortzea. Azkenean, Elijor—ek, legez zigorra deusezta zezakeen bakarrak, erdibideko epaia hartu zuen eta berrogeita hamar

Patri Urkizu

zigorkada agindu zituen. Eta berehala Husein—Agha—k etzanarazi zuen marrokiarra ahuspez eta beraiek ezarri zizkion bizkar biluztu gainean lehenbiziko hamabi kolpeak, ondoren makila zigorgileari pasatu zion eta hau oso gogo onez bere eginbeharra betetzen saiatu zen. Bizkitartean zigortuak boza goraz Koraneko lehen kapituluetakoa laudoriozko—bertsoak errepikatzen zituen eten gabe behin eta berriro:

— O fededunak, zeruko laguntza eska ezazue otoitzaren eta pazientziaren bitartez, Allah pazientziadunekin baita.

Eta zigorra amaitu zenean, altxatuz eta doinua batere igo gabe esan zuen:

— Ala jainkoa! Ederki jipoitu nauzue.

Gobernadoreak bere bistatik urrunarazi zituen marrokiarrak eta abbadiatarrak afaltzera gonbidatu zituen. Anton miresturik gelditu zen ekialde hurbil honetan aurkitzen zuen zuhurtziaz, zeren kasu zail, bihurri eta astuna zitekeena ordu batzutan erabakitzen jakin izan baitzuen, tinta ttantarik isuri gabe. Halako batez, ordea, agertu zen izaki ttipi bat harro—harro.

Izkiribatzailea zen eta sudur mako luze batez hornitua. Ezpain lodixkak zituen koptoen antzera, soin—jantzi luze beltza, buruko oihal koloreztatua eta tintontzia gerritik zintzilik ezpata gisara. Begi goibelez so egiten zuen eta keinu atsegin bat eginez belaunen gainean bere lan erremintak ezarriz idazten hasi zen. Handik une batera kopia bat eman zien izenpetu zezaten frantsesez, ingelesez eta italieraz.

Pelegri haietaz aske, gobernadoreari opari eder bat egin zioten abbadiatarrek justizia egiteko molde azkar eta ezin hobeagatik, eta beste bat apalagoa zigor—emaileari. Biharamunean sos batzuk txabola alokatu zienari eman ondoren Arabiar kostaldera itsasoratu ziren.

Asteartea zen, urtarrilaren bederatzia eta gau osoa nabigatzen iragan zuten. Hassany uhartera iritsitakoan hegoaldean moilatu zuten. Ostegunean Yenbe—ko badian, eta larunbatean Mair—en. Igandean, urtarrilaren 14ean

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Buraikah—en, astelehenean Mastuwrah—en, asteartean Dunayb—en, asteazkenean Ubhur—en eta ostiralean eguerdi aldean Jeddah—en ziren.

Haurtzaroan erakusten zieten dotrina eta testamentu zaharreko ixtorio oroitzapenetarik kuttunenetakoa Itsas—Gorriko pasaia miresgarria zen. Biblia ireki eta irakurri zuen Antonek:

Eta Moisek eskua bedatu zuenean itsasoaren gainera, Jaunak urratu zuen hura baixe bortitz eta erregarri gau guzua iraun zuen batez, eta itsasoa agortu zuen, eta ura berezi.

Eta Israelgo semeak idorrik sartu ziren itsasoaren erdia gaindi, ezzen ura barresia bezala zegoen heien eskuinetik eta ezkerretik.

Eta Egiptoarrak jarraituzean sartu ziren heien ondotik, Faraonen zaldizko guztiak, eta orga—lasterrak, eta zaldiak itsasoaren erdira.

Eta jadanik etorria zen goizaldeko beila, eta hona non Jaunak suzko eta hedoezko habetik begiraturik Egiptoarren kanpei, hil zuen heien armada...

Hantxe zihoazen, bada, Itsaso Gorrian barrena Indietarako antzinako ur—bidean. Ameriketako aurkikuntzen ondorengo sukarrez zertxobait ahantzia izan bazen ere, berriro bere garrantzia berrartzen ari zen.

Ptolomeotarren ondarea erromatarrek jaso bazuten lehenik, gero Veneziako merkatariak izan ziren jaun eta jabe itsaso hartan, Vasco de Gama portugesak komertzioaren ohitura zaharrak aldatzen hasi zen arte. Azkenik Ingalaterra, bi puntetan nagusitzen ari zen, Ekialdea Mendebaldearekin lotzen zituzten katebegi guztiak bereganatzeko ahaleginak burutuz. India eta Europa. aski ezagunak ziren, garai hartan, baina bidean ziren hiriek altxor benetan interesgarri eta oraindik ia ezkutuak eskaintzen zizkieten historiagile eta merkatarietara.

Armek eta jakintsuek ia dena esana bazuten Siriaz eta Egiptoz, ez zen hala gertatzen Itsaso Gorriaz, oraino urruntasun eta iluntasun batean baitzirauen. Hala bada, Ekialdera jo zuten, hain gutti ezagunak ziren tribu arabiarrengana, hemendik geroago Etiopiarako bidea hartzeko asmotan.

Ontzian zihoazen eta bere buruak jakintsutzat zituzten agure batzuek Biblia besterik ez zuten ezagutzen. Bisitari bat etorri zitzaion kamainara ate—joka, aitzina, eta aitzin—solas luze baten ondoren, Anton. ikustean ohi bezala liburu bat zeukala eskuartean esan zion:

- Ah, ah, ah, Dabiden liburua irakurtzen ari zara?
- Ez, legeak dira.
- Ah, ah, ah, zein diren ederrak Moiseren liburua!
- Ez, ez dira Moiseren aginduak.
- Ah, ah, ah, eta zein dira, beraz?
- Ez duzu ezagutzen, Montesquieu jaunaren liburu bat da.

Izena errepikatu zuen bere erara, alegia, ez ulertzeko moduan. Harriturik zegoen ikusten zuelako ez zutela abadiatarrek haragi gordinik jaten, ez zirela mozkortzen alkoholez eta eztiz eginiko likorez, eta ez zeramatelako bederen harem ttiki bat berekin.

Itsas—Gorria zeharkatzen zuten ontziek antz handia zuten Mediterraneoan *xebeke* deituekin, popaldea zertxobait garaiago izan arren. Bestetik, arabeak ez ziren igotzen bela zurrunera handik lanak egiteko, dena zubitik egiten baitzuten. Horrela burutu maniobra guztiak oso mantsoak gertatzen ziren, eta era berean arriskutsuak. Brankaldea oso fin eta luzea zutenez, itsasoa haserretzean ez zuen balio handirik. Gauzak honela, ez zen harritzekoa haizea ttipi baina kontrako, hamabi ordu iragan izatea bost mila aitzinatzeke.

Beraz, ez zirudien nabigatzeko modua aldatu zenik antzinatik. Goizalbarekin jaiki eta gutxienez ordu bat pasatzen zuten aingura altxatzen eta masta nagusiko bela hanpatzen. Pilotuak hartzen zuen bere lekua lema ondoan

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

eta mutil batek ematen zion ikusten zituen harkaitz guztien berri. Eguerdialdean labean egositako ogi puxkat jaten zen, eta haizeak popaldetik jotzen bazuen ez zen aingura botatzen ilunabarrean baizik. Ras Banas igarotzean ekaitza zetorkiela gainean ikusirik, kapitainak ahotsa altxa gabe eta batere mugitu gabe esan zien marinelei :

— Konpai, iruditzen zait bela bildu beharko genukeela.

— Nola?

— Konpai, belak!

— Nola?

Baina nola kapitainak ez zuen inolako aginterik non ez zen bere etsenplua, ordu laurden bat geroago haizeak jada bela urratu, hautsi eta berekin eramana zuen, pilotua justu hitz hauekin kontentatu zelarik:

— Gure kapitainak arrazoi zuen. Allah miseriakordiaz betea da.

Nabigazio honetan topatu zituzten perla biltzaile batzuek ur gorri haietan pulunpatuz denbora luzez irauten zutenak ur gainean ageri gabe. Kokodrilo haragiz elikatzen ziren kostaldeko herrixka haiek.

Esan bezala, azkenean aingura La Mecca—ko portua den Jeddah—en bota zuten. Itsasotik begiratuta oso ederra da hiri hau, piramide txuri baten antzera hondartza hori—gorrixkaran eserita. Etxe xuri—xuriak, dorre garaiak eta mezkita ugari. Ez du zuhaitzik, ez belar izpirik. Axaleko koralek behin eta berriro musika eta irudi ezberdina sortzen zuten zilarrezko afarretan hautsi berde koloreko itsasoko uhinez mainaturik.

Hiri barneak ere perla berezi eta arraro bat zirudien. Behetik bururaino, lehen solairutik terrazaraino ate eta leihoak irudiz eta hornimenduez edertuak. Hiri isila izendatzeko modukoa zen, kale hertsietan ez karrozarik, ez deus, isiltasuna baitzen nagusi. Noizbehinka

asto edo gameluren bat zamaturik, eta aldamenean buru—oihalez estalita eta arropa koloreztatuz jantzita pasaiari isilak. Ez zen deus aditzen, non ez zen miseria gorrian zeuden eskaleen psalmodia errepikakor eta errukarria:

— Allah! Allah!

Jeddah baltsamu komertzioaz bizi zen batik bat. Hau ekialdeko hoberenatarikoa zenez eta Sappetok bere eginkizunetarako behar zuenez abar txiki bat erosi zion Antonek hosto usaindunez hornitua, beirazko ontzi batean gorde zuelarik Etiopiar berekin eramatearren.

Abadiatarrekin zihoan Richards jauna izuak harturik, Arabiarren lurraldeetan gelditu zen, baina ez zori hobearrekin, heriok bere atzaparretan hartu baitzuen laster.

Beste itsasontzi batek eraman zituen Jeddah—etik Massawa—ra. Raguam, Ibrahim, Fara uharteak, Qunfundah—eko portuak bidean topatu zituzten eta Asiako kosta utziz Afrikakorantz zuzendu zuten branka. Dahla uharteetarik iragan eta Massawa—n 1838ko otsailaren hamazazpian moilatu zuten.

Ez zitzaien falta izan berehala Afrikan barrena abiatzen ziren bidaiari bakartiei sortzen zaien arazo, eragozpen eta oztoporik. Massawa edo Missawa hiriak, hamaika modu ezberdinez idatzia ikusia baitzuten liburutan, portu on bat dauka. Bertako biztanleek *Batze* deitzen zuten, eta mundu guztiak bere burua musulman zintzotzat eduki arren Koranari kasu handirik egin gabe edariari ematen zion lasaiasko. Beraz, ez zen harrigarria, elkar errespetatzea hemen paganoak, kristauak eta musulmanak.

Badian itsasontzi handiak aingura bota zezaketen lasai. Hiriko kaleak oso estuak dira, etxeetako itzalak eguzkiaren su kixkalgarrietarik gerizatzeko balio duelarik. Egoitzak bi solairukoak ziren eta ongi eraikiak zeuden. Mezkita bi dorreduna. Gobernadorearen etxea, zur bernizatu berezirrikako leihoez apaindua zegoen. Frantziako kontsul ajentearen izena De Goutin. Azoka ez zen oso handia, baina ongi horniturik zegoen Europatik, Asiatik, Afrika barnetik eta Ameriketatik ekarri ongi mota orotarikoez. Indiarekin ere harreman onak zituen

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

eta komertzioa guztiz bizia. Halere, merkantzia truke eta harreman gehienak Itsas Gorriko bestaldean zeuden bi portuekin, alegia, Jeddah eta Hodeydah—ekin zituen.

Ur—saltzaileek Imakullu—tik karreiaturiko ura eskaintzen zuten, zeren auzo honek zuen gauza on bakarra hori baitzen, ur—geza zuten putzu anitz. Harkiko—ikako ura, aldiz, ez zen hain ona, gazi pundua baitzuen. Dena den, berotasunak sorturiko egarria itzaltzearen gehienetan esnea edaten zuten, edota ura eztiarekin nahasia. Hiriko biztanle ezberdintasunek antropologoaren bozkarioa eta zoriona eginen zuketen, aroa hain gaitz izan ez balitz. Arabeak, greziarrak, albanesak, turkoak, europarrak han zebiltzan beren jantzi eta hizkuntza ezberdinak nahasten hamaika tribu etiopiar ezberdinen hizkerek, kalapita ulergaitzean. Ez zen harritzekoa, beraz, bertakoek *Batxe* 'Arrotz' esangura duen hitzez deitzea hiri honi. Denek saltzen zuten hemen zerbait, haur txikiak barne, merkatari sena muin—muinetaraino zutelarik sartua, eta aberatsenek leku zabal eta handi batzuek zituzten bertan karabanek zekartzaketen martxandizak almazenatzeko.

Gobernadorea solairu bakarreko eta harrizko etxe handi batean bizi zen, eta terrazan txabolatxo batzuk zituen ezarriak bere andereentzat. Lekurik garrantzizkoena dibanaren sala zen. Ia egun guztia erdi—etzanik iragaten zuen, zeren kanpoan eguzkiak hain zuen gogorki jotzen eta hain zen handia beroa eguerdialdean, non lana ere utzi beharrean aurkitzen ziren.

Aidine zuen izena orduko Gobernadoreak eta bere boterea uhartean mugagabea izanik, ez zen hala handik landa. Hiritik at edonor Jeddah—eko Patxaren menpe zegoen eta turkiar familia dejeneratu bateko agure paralitikoa zen *naib* delakoa edo buruzagi agintariaren epan gelditzen. Aidinek eraman zituen *naib*—arengana honen baimena beharrezkoa baitzuten lurraldeetan barneratzeko. Europar bakoitzagatik zerga eder bat iguriki zuen *naibak*, baina

Patri Urkizu

eskerrak Aidineren arartekotasunari eta adierazi ziotela behin eta berriro ez zirela merkatariak, sos apur batzuek kontentatu behar izan zuen.

Gertakizun hauek igaro eta urte batzuek geroago Antoni gogoetok sorrarazten zizkioten.

&&&

Itsasoetan barrena abiatu direnak ongiasko dakite zein nolako ezberdintasuna dagoen bidaietan, asmatutakotik bizitzen denera. Lehorreratutakoan irudikatuak eta buruan hausnarturikoak polliki—polliki aldatzen dihoaz bertakoekin harremanak areagotzen diren heinean, hizkuntza eta ohitura berritan sartzeak mundu guztiz ezberdinetan sartzea esan nahi baitu. Itsaso zabaletan zabiltzanean, partiadako ideia guztiak beteko dituzulakoan zaude, baina portura jaistean gogoeta guztiak lipar unetto batean aldatu beharrean aurkitzen zara, egokitu beharrez atzerri ezezagunaren berezitasunetara. Desertuko ibilbideak era berdintsuko aldaketak eskatzen dizkizu. Antonen ustez ekialdeko jendeak mendebaldekoen parean bertutetsuago eta malguago ziren, solasaren antze eta artean garaitzen zituzten, agian behartuagoak zeudelako ahalmen horiek lantzera, naturaren aldaketa horietara egokitzera, ez gazetarik, ez berri paperik, ez beste komunikabiderik ez zutenek, eta giza harremanen moldaketa horien arabera zutenek albisteen lortzea.

&&&

Fardelak, balizak, kutzak eta tresnak eramateko sei asto erosi zituzten, Arnauld, Giuseppe eta Anton oinez zihoazelarik. Gidari saho tribuko batzuk. Eguzkia sartutakoan irten ziren Txiliki—ko desertu kiskali eta urgabea zeharkatzeko asmoz. Mendi hertsiduren artetik bi egunez ibili ondoren lehen

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

ordokira iritsi ziren. Gidariak arin zihoazen, ohituta baitzeuden, beraiek, aldiz, baratxeago. Arrunt nekaturik, baina azkenean Halaie izena zuen lehen herrixka giristinoan sartu ziren, buruzagiak bere etxean hartu zituelarik.

Hamabiren bat ziren kokorika eseririk janarien inguruan, eta abbadiatarrak ahalegindu ziren beraiek egiten zuten modu berean jaten eta edaten. Biharamunean irten baino lehen lortu zuen buruak abbadiatarrengandik sos zenbait. Polliki—polliki ohartzen ari zen Anton zeramaten interpretea gezurri hutsa zela, ez zekizkiela lekuen izenak eta ez zuela ezagutzen bidea ongi.

Mila zortzirehun eta hogeita hemezortziko martxoaren 28an Igr—Zabo izeneko parajera iritsi ziren. Hemen harkaitz haundi batzuen tartetik iturri bat ageri zen ur freskoa zeriola. Halaie utziz geroztik Dejjad Kassa, Etiopiako printze ospetsuenetariko zen Dejjad Sabagadis—en semearen menpeko eta Gabraie izeneko buruzagi baten parajeetan zeuden, eta honen soldaduek ez zituzten bakean bizitzen utzi, berak nahi zuen zerga neurririk gabea ez ziotelako ordaintzen.

Txispa bat oparitu zion Antonek Dejjad Kassa—ri eta honek esker onez Gabraie behartu zuen emandako hamar sosak itzularaztera. Otordu eder batera inbitatu zituen eta han beste buruzagiez inguraturik zeudela, hauetariko batek Antonen bizarra ukitzeko gogoari ezin eutsiz hurbilduz ahalegindu zenean honek amorraturik izugarrizko masailekoaz erantzun zion, esanez:

— Utz nazak bakean!

Harri eta zur gelditu zen Arnould eta eskerrak Dejjad Kassa—k jakin izan zuela buruzagien artean sortutako asaldamendu modukoa baretzen. Eskatu zion Arnauldek Antoni bere burua desenkusa zezan, hala egin zuelarik. Egia esan, memento hartan bien bizitzak ez zuen sosik ere balio, eta herioren hegalak oso gerturik pasatu ziren.

Zenbait egunen buruan polliki—polliki zamakariak utzi egin zituzten ez baitzuten ikusten abbadiatarren espediziotik onura izpirik atera zezaketenik.

Patri Urkizu

Zerbitzarien ihesaldi honek neurri batean poltsa lasaitu egin zien eta bukatzear zituzten janari apurrak ere ez zieten hain arin ihesegiten.

Bidean tximuak, basurdeak eta *askokó* deitzen zituzten muxarrak ikusi, eta lehoi batek gauzez espedizioko bat eraman ondoren Debre Damo—ko monasteriora iritsi ziren.

Ederra zen benetan Gebre Maskal erregeak Mikel sainduari eskainitako eliza. Zurezko sabaia du eliza atariak lerro geometrikoz eta abere irudiz apaindua. Barnea sei zutabek banatzen dute eta hiru partetan berezia dago. Garai batean milaka fraide izan omen zituen mendi muinetan ideki zuloetan gordeta bizi zirenak.

Adwara iritsi ziren, azkenean, Andrea Oviedok XVI. mendean lehen misio katolikoa ezartzeko hautatu zuen lekura, maiatzaren hamalauan.

Hirian sartzerakoan guardasol handi baten gerizpean zegoen misiolari protestante batekin topo egin zuten. Etxe handi baten eraikuntza zuzentzen ari zen. Gomitatu zituen zerbait edatera eta elkarren berri eman zioten. Harri eta zur gelditu zen ikusiz ez zeramatela herrietako zaindariantzat oparirik. Dena den, etxe batean atso zaharren artean aurkitu zuten etzateko modua, haiengandik ikasi zutelarik nola egin ogi opila, zein urarekin batera zen zuten elikadura guztia.

Europar haiek, alabaina, oso gaizki ikusiak zeuden batik bat Biblia erakusteko zuten modu harroxko—dogmatikoagatik, eta Dejjaj Ubie—k herritik bidali egin zituenean misiolari protestanteek negarrez agurtu zituzten beste europarrak. Haietarik bat emaztearekin zihoan, eta hau negar malkoz urtzen ari zen. Arnauld, Anton eta Giuseppek ere arrisku berdintsuak pasatu beharrak izan zituzten, zeren epaiketa antzeko bat egin zieten merkatuko plazan.

Abade nagusia bere apaiz guztiez eta Printzearen seiehun soldaduez inguraturik erdi—erdian ezarrita zegoen. Sapetori arabieraz galdetu zioten eta antza denez honen erantzunak egokiak iruditu zitzaizkien. Ondoren Abbadia anaiengatik galdetu zioten, ea nola deitzen ziren:

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

— Anton.

— Eta honek?

— Mikel.

— Eta heuk?

— Jusef.

— Izen egoki eta sainduak benetan, —esan zuen abade nagusiak—, horrek esan nahi du ez zaretela hiria utzi duten europarren arraza berekoak. Baina esaidazue zertara etorri zareten hona.

— Zuen mendietako ura edatera, zuen mendi gailurren edertasuna dastatzera, zuen izarrak ikustera, zuen hizkuntzak ikastera, eta zuen artean adiskide on—onak egitera.

Laket izan zitzaien nonbait ihardespena eta bakean utzi. Adwatarrek aski ongi tratatzen zituzten. Anton arabiera eta amariña hizkuntzak mintzatzen zituen interpretea alokatu ondoren aldameneko herriak aztertzerara joan zen.

Herri irteeran ikuskari benetan lazgarria agertu zitzaion begi aurrean: ehunka pertsona, haur, gazte eta zahar karioletan preso, beren familiek askatasuna erosi zain, edo bestela esklabo gisara saltzeko prest.

Adwan Antonek Domingo Idiart Borda morroiak 1838ko maiatzaren 9an idatzitako gutun hau errezibitu zuen,

Jauna,

Ethorri zarela intzun dut aspaldian, zure anaia jaunak ere erran daut. Ez dakit zer arazu izan duzun lehen bezala ez ezkiribatzeke, zure mabunga largo hersitu dela ez dut dudatzun, baina arazu hoiek guziak espantza dut txipituko ditugula denbora guti barnean, hara artean errain nahi dautzut bi hitz.

Patri Urkizu

Izkiribatu dautzuet espres frantsesez enkas ez balin bazineten algarrekin zu eta zure anaia. Egun launbata maiatzaren 9a nahi izan dautzut iskribatu heskuaraz, bainan ez dut ahal, kasik ahantzi dut heskuara.

Atzo geure leheneko adiskidearen letra bat ekhusi dut izkribatuia. Jemma—tik mintzatzen da. M. Amb aski droleki eta bertze zer bait ere ala Hobina Celassié—eri izkribatzen dio letra bat aski bitxia, zure Anaia jaunarekin badugu zenbait arazu, bainan ez dakit, ze iskribatu daut letra bat gaitoa, nola kolpe bat buruan, orai iskribatzen diot letra handi bat, espantu dut balin badu 2 orditan konfientziarik ni baithan.

Mintzatzen zaut arrazoinatu gabe oboin bati bezala, orai ez dut dudatzun samurtuko zarela ez balin batuzu gauzoi arrazoinarazten zuek behar diren bezala. Izkiribatu diot 8 aldiz, ez daut ihardesten, hemen 4 hilabete du orai separatuak girela. Hantik eta hementik bethi tormentatua, atakatua eta hirritatua niz kasik alde guzietarik, ez dut dirurik, 15 jende baditut, badu 15 egun izan ditudala 4 abokat edo thalariak zure anaiaren phartez joan dire bere bidean 2th bihia 15 jendea eta 4 kabalaren, 1 burra badut oraino, bat aski izanen dut 15 eguneat, nasai behar dut hanbat despendatu, baditut 2 jende eriak, hanitz samurtzen date zere anaia balin badut hanbat xahutzen diru.

Igorri daitanean 4 potakai erran daut duela begi aski eta sobera heikin bera ethorri artio, entzuten ditut zuen berriak, mai z ethorriko zaretela aditu dut hunat maiatzaren azkenean. Othoizten eta errekeitzen zaitut, ez erran zer izkiriatzun dautzut Adwa—ko aphezaz, zeren hunat izkiriatzun baitute oro eta gero gerla edo lapizta ethortzen baita eta ez dut ahal iragazi heikin, zeren biga edo hirur beire eta ni bakharra, erran diotet gezur handi bat, ez dutela iskribatu zer bait beren kontre, hainitz mintzatu gira [...], aldiz errozu ene zure Anaiari hala hanbat lipizta ditut izan hemen eta oro

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

hobenik gabe zer niz flakuia, ez nezala ahantz, eta jaungoikoak pentsa zitzala zu eta zurekilakoak oro. Halabiz.

Zure Anaia jaunari iskribatu diot letra bat aski gaiztua, bainan erran diot orai urriki edo damu dutala. Bainan egin daut hanbat gaizki utzirik hemen 30 edo 40 egunentzat eta gero ez daut iskribatzen [...], hilabete iskribatzen diot 7 aldiz eta ez egin nahi arrapostu bat behar den (ahal nuen) bezalakoa, izan burdinetan oraikoan hanbat aldiz hanitz gaiztoak izan dire hemen jende guziak guretzat salbu Lik Atsku enperadorea, eta bere semea eta M. Dimmet aphezak biak arrazoin hoiek [...], jakiten du zure Anaiak ethortzen zait ere maiu oboinak hunat, ez duzu behar ahantzi negua heldu dela, fite eginen du hemen aldiz hanitz uria , hemen alde guzietan gerla eta miseria.

Zure fidel zerbitzari

Domingo Idiart.

Nabari denez gutun honetan SOS antzeko bat bidaltzen dio Domingo zerbitzariak Antoni, kexu Arnauld—ek bakarrik utzi, egoera tamalgarrian abandonatu eta idazten dizkion gutunei erantzuten ez diolako.

Antonek ihardetsi zion, antza denez, behin baino gehiagotan aginduak emanek Domingori, baina aurkitutako gutunen artean euskarazko bakarra hau da, Poradokenetik igande goiz batez idatzia:

M. Dillon erran zaut maihatzean bi letrak eskribitu hituela eta bere mutilaz gureganat Adoanalat partitu aizela, bainan ez dugu harpatu mutila bidean. Hola ez ditugu ezautzen hire berriak. Gondarrako jendeak aski erran dautate nola gaizki egon bizela eta nola ez ditut nahi sinhetsi gauz batarentzat baizik, zeren niri ubien aboaz errana baita, erran nahi da, joaiten bizela hirian bouclier eta lantzekin Dedjmatek, ubien, hala erran

Patri Urkizu

daut baduk soldata xuri bat Gondarran, nahi duk gerla egin Rasarekin. Erran dut mutila dela ez soldata, ikusi du, soldata balin ez bada, nola bouclier eta lantzak ekharrazten ditu? Ikhusi duk nola hire ergelkeriaz argi gaitoan etzartzen gituk. Ubien, nahi zituen gure esku pikatu, baina sinhesten dut ez bibotz gaitoz, baina bai ez pentsatzeaz hala egin dukala. Orai erakbatsiko duk, ene anaiaren hitzen ontsa egiteaz.

Ene anaiaren paperen barnean bada bat hainitz balio duena, Frantzia balio du mila liberak eta gebiago, bertzenaz ez duk ezautzen hola, paper guzik eskribituak ekharriko dituk eta abal balin baduk larru barnean, josiak hirekin, erran nahi da, hire gorputzaren gainean.

Zamariak behar dute izan entiers eta balin ez badituk hirur erosi, biga edo bat guretzat hainitz onak izanen dire. Behar dire izan jeunes eta nehor ez da haien gainean jarriko itzatu hartio.

Karabana hamabortz egunen buruan joanen da. Harekin ethorriko hiz, bainan gu eta hiretzat behar duk ethorri bethi oinez eta nola gizon osoki pobere bat, deuse buruaren gainean. Zango bordunex eta zama gaitoanareki. Ez duk behar kwaren ekharri, bertzenaz hartuko haute bidean [...] Gure adiskide Adwa—n Abuna Jakob da, baina ikhusiko duk behin xoilki eta gauaz jende gaitoen beldurtzeaz [...]

Hainitz goraintziak Lik Atkom, Etchuguri, K. Mariam, N. Montori, orai N. Kyros letra izan dut, ontsa da. Ab Jusef eskribituko diot. Poradokene, igandian, goiz goizan.

Domingok egindako ergelkeriak erakusten dizkio Antonek, beraz, eta nola behar den bideetan kontu eta arreta handiz ibili, eskale itxuraz, bide—lapurrek larrutsik utz ez dezaten Adwa—tik Aksum—eko bidean zihoala, kontatzen du Bruce—k gorago aipatu dugun bere liburuan, ikusi zituela hiru etiope idi bat lurreratzen, lepondotik haragi xerra batzuk kentzen eta ebakitako zauria elorritz josi ondoren okela fresko—freskoa jaten idiaren orru ikaragarriak

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

entzuten ziren bitartean. Hau sinesgaitza egiten bazitzaien europar batzuei, ez zen batere harrigarri herrialde honetan, ezen animali hil—berriaren haragia eramaten zuten bero—bero ahora eta irensten plazer handiz. Gibela, giltzurruna, eta era guztietako barrenkiak ere oso gustokoak zituzten.

Muino berde ederrez inguraturiko haran pollit batean dago kokaturik Aksum, obeliskoen herria. Hauetarik garaienak hirurogei oin izanen zituen eta hieroglifiko horniturik zegoen. Obeliskoak eraikitze harriak aldamenetako mendietarik ekarriak ziren eta inskripzioak egiteko ohitura oso zabaldua behar zuen izan garai batean etxeetako atariak ere izkribuz hornituak baitzeuden. Denak amariña hizkuntzan daude izkiribatuak. Biztanleek ziotenez, Aksum—eko eliza juduek zuten eraiki, eta obeliskoak deabruak.

Tradizioaren arabera, Aliantza Zaharreko Arka eta Sabako Erreginaren jauregia hemen zeuden kokatuak. Zibilizazio aksumitak III. mendetik VII.era iraun zuen, eta bertako erregeek Siongo Santa Maria elizan zituzten koroatzen. San Pantaleonen eliza, aldiz, bi ordu t´erdiko bidean aurkitzen da, muino baten gainean, baina erdi eroria dago tximistaz desegina gertatu baitzen. Adulis izan zen inperio honen irteerako portua itsasoari buruz.

Beraz, itzulirik berriro Adwa—ra Tigre lurraldeetan sarrera egin ondoren, iragarri zuten Gondar aldera abiatuko zirela, oraingoan, baina ez zituzten sinesten. Halere, hona maiatzaren hogeita zortzian iritsi ziren, aste bat beranduago, bidean lehoi izugarriez beteak zeuden Maisagi, Zumai, Idaga—Saha, Addankato herrixkak iragan zituztelarik.

Ipar orratzez eta beste tresnez hartutako oharrek hala nola denborarenek ez zioten Antoni zehaztasunik ematen askotan burdin—mehatzez beteriko lurak baitziren eta guztiz bihurriak bidexkak.

Gondar hiria oso europar gutxik bisitaturik zuten abbadiatarrak aitzin, portugesak bidaliak izan zirenez geroztik. Burutu nahi zituzten ikerketarako,

Patri Urkizu

beraz, oso leku aproposa zen. Asteroko azoka Etiopiako garrantzitsuenetarikoa zen, barnekaldetikako karabana anitz erakartzen baitzituen.

Sartu zirelarik hirian Atsku izeneko epaile inperialarengana zuzenduak izan ziren. Bazirudien honek atzerritarrak eta batik bat europarrak gogoko zituela. Oso harrera ona egin zien hirurogeita hamar urte inguru, adimen argi eta borondate oneko zirudien agureak, ostatu hiru egunez bere etxean eskaini baitziren, eta zekien arabiera apurrean esan zien:

— Aski urrundik zatozte, ene haurrak, eta hain dira arrotzekiko ohoin hiri honetako gizonak, non neroni dagokidan zuek ongi zaintzea hemen zaudeten bitartean. Eskerrak eman zizkioten ordainez, hala nola mando bat opari gisara eta sos batzuk.

— Esker anitz zuei, ene haurrak, zuek eguerdia aitzinean daukazue oraindik, nik aldiz giblean, eta Gojam aldera itzultzean onets ezazue Gondar, gure Etiopiako lilia baita.

Eguzkiaren irudi eder honekin neurtzen zuen denbora agure jakintsu hark, beraz. Antonek, mendi gailurretako neurriek teodolito hutsez eginikakoak baino zerbait zehatzago eskatzen zutela ohartuz, zehazki egitekotan, Europara itzultzea erabaki zuen tresna eta aparailu hobe eta berriagoen bila.

Hau egitekotan eurite handiek bideak itxi baino lehenago behar zuen izan, ezen Etio pian abendua, urtarrila eta otsaila dira hilabeterik beroenak, eta ekaina, uztaila eta abuztua euria dakarketenak.

Arnauld—ek ontzat eman zuen ideia eta gutun batzuk eman zizkion, tartean Baionan bizi zen Holly andereñoarentzat bat, Gondarren, 1838ko ekainaren 20an idatzia. Bitartean bera leku on baten kokagunea aurkitzen, astronomiazko neurketak ahal bezala egiten, lurraldea hobeto ezagutzen, hala nola eguratsaren gora—beherak eta bertako hizkuntza amariña ikasten saiatuko zen.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Elkarrengandik besarkada handi batez bereizi ziren uztailearen aurrenean, geldituz, handik urte batera elkar ikusiko zutela berriro Massawa uhartean. Sapeto zegoen lekutik itzultzerakoan pasatu zen Anton eta besarkatu ondoren honek gutun batzuek eman zizkion Filippo Franzoni kardinalari eta *Propaganda Fide*-ko buru zenari eskura emateko, non beste gauzen artean adierazten zitzaion Adwako San Gabriel elizako apaizek deklaritzen zutela Erromako elizarekin bat egin nahi zutela, hau zenez Jesusen benetako Eliza. Bide beretik beste misiolari batzuek eskatzen zien bere misioa Tigre eta Amhara lurraldeetan behar bezala jarraitu ahal izateko.

Takkaze ibaia aski loditua zihoan arren lortu zuen iragatea arrisku handiz, ordea, Massawa-ra uztailean iritsiz.

Hemen ahalik eta arinenik belari bat hartu zuen. Honek Dese, El Dallamah, El Ajuz, Fur uharteetan aingura bota zuen eta Hanfalah-eko lur hondartsu eta bakartian desenbarkatu ziren ur bila. Mokka-ra irailaren hogeita seian iritsi ziren, non somaliarren hizkuntza entzun eta ikasi zuen, ikusiz ilmorma hizkerarekin ahaide eta harremanak izan zituela, bederen lau hitzetik bat gutxienez berdina zuenez. Mokka Yemengo hiri berrietarik zen, zeren ez zirudien XIX. mendea baino zaharragoa. Hodeydah-era iritsi ziren gero.

Hau ez zitzaion Antoni Mokka bezain polita iruditu. Ondoren Kawra, Quwz el-baqrah, Qunfundah, Dagbaj, Saja, eta Sawdah iragandakoan Jeddah-en eskala egin zuten berriro. Azkenik El Kairo-ra arribatu ziren.

Berekin zeramatzan Antonek erositako hizkuntza ezberdineko bi esklabo etiopiar, Adula eta Grebra. Beren hizkeren berri ematen zioten eta bidaia-kutzak eramaten laguntzen.

Maltan zegoelarik besteen artean bi gutun idatzi zituen Antonek. Bat Jomard ingeniariari eta bestea Garcin de Tassy hizkuntzalariari.

Erromara iritsitakoan *Propaganda Fide*-ko buru zen Franzoni kardinalari Sapetoren gutunak eman zizkion eta komentzitu komenigarri zela Afrikako

paraje urrun haietan misioak bersortzea, hedatzea eta Eliza Katolikoaren legea berrezartzea. Gregorio XVIa aitasainduarekin egotea ere lortu zuen, zein benetan miresturik zegoen kontatzen zizkion ixtorio guztiekin hala nola zerbitzariekin. Berak sortutako Deun Gregorio Handiaren Zaldun ordenakoa izendatu zuen eta zortzi puntako domina oparitu, non *Pro Deo et Principe*, esan nahi baita, Jainkoa eta Printzeagatik irakur zitekeen.

Adula eta Grebra esklaboek Erroman aho zabalik zebiltzan. Hango jauregi, hango karrika, hango harrizko zutabe, hango iturriekin. Zer jendetzak, zer ur fresko eta onak, zer jauzi paregabeak! Nola jalgitzen ziren jauzika urak arroketarik edo harrizko munstro batzuetarik, ahotik gora airean altzaraziz ura. Ikustean harrizko lehoi, basa—zaldi eta beste abere motak esaten zuten:

— Oh, oh, zein ederrak!

— Oh, oh, zenbat basa—pizti minik egiten ez digutenak!

Egun batez ere izan zen Anton Biblioteca Vaticana—ko geletan gordetzen zituzten eskuizkribuak eta liburuak ikusten eta dastatzen, bidenabar etiopiar eskuizkribuen titulu zerrenda eta beste zenbait xehetasun kopiatzen.

Anton Abbadia eta bere esklaboak portuan bete beharrezkoak egin ondoren baporea hartu zuten. Ke beltza zerion tximiniari hodei ilun eta itsusi bat margotuz zeru urdinean. Livorno—n gelditu ondoren, iritsi ziren Marseillera, eta hemendik Parisera :

Parisen mundu guztiak burua jirutzen zuen hobeto behatzeko Antonek berekin zeramatzan bi esklabo eder haiek. 1839ko martxoaren hamabostean Geografia Elkartean Etiopiako bidaiaren laburpena eman ondoren, gomiatu zuten beste txosten luzeago baten aurkeztera, zein handik hogeitau egunetara, apirilaren bostean egin zuen.

Galdetu ziotenean berekin zeramatzan esklabo haietaz, erantzun zien Grebra Oegziabhe, familia noble batekoa zela, bere borondatez eta gustuz zebilela berarekin, eta behar bezala hezi ondoren mendebaldeko zientzia eta ohituretan, zibilizazioaren misiolari gisara itzuliko zela sorterrira aske.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Dinamarkako itsas—kapitaina zen Falbe jaunarekin topo egin zuen eta aspaldidanik zeukan teodolitoa oparitu zion. Gambey etxera eraman zuen aurkitzen zizkion hutsak zuzen zitzaten. Hemen eramangarriago eta hobe izanen zen beste bat egin zezan gomendatu zioten.

Ia bukatua zeukanean Gambey jaunak teodolito berria, inolako arrazoi baliozkorik gabe eta Antonen harridurarako ukatu egin zen amaitzera.

Nola justifika zezakeen zientzi munduaren aurrean halako joan—etorri zail eta arriskutsuak egitea tresna eskas batekin? Baina nola ez den eternitatea irauten duen zorigaitzik, honek ere ez zuen hainbeste iraun. Joinville—ko printzea laguntzan etorri zitzaion sextante batekin, eta honetaz baliatzen ahal zen arrutako gora—beherek erabiltzera behartzen bazuten. Strasbourg—eko Laquante kapitainak, urte anitzetan ikerketetan ibilia, bidai—ispilurako berak diseinaturiko oin paralaktiko arin eta guztiz karreiagarria eman zion. Noski, honek zerbitzu handia egin zion gero. Fortin—ek moldatu barometroa ere oparitu zion. Walferdin jaunak bere hipsometroa eta Bréguet—ek kronometro ezin hobe utzi zizkioten borondate onez inolako beldurrik ez erreparorik gabe, kontutan izanik zein nolako arazoak eduk zitzakeen Afrikako lurralde basa eta ezezagun haietan.

Maiatzan Londresera joan zen Gondarreko buruzagiek Erreginentzat emandako gutunak aurkeztera. Hauetan eskatzen zioten, Sennaar—en bildutako egipziar armadak prestaturiko eraso saia zedin geldiarazten parte zuzena hartuz. Manchester kaleko 6. zenbakian iragan zituen egun batzuek eta hemendik egunero joaten zen British Museoko liburutegi ederrera, bertan ziren etiopiar eskuizkribuen katalogoa kopiatzera eta berea osatzera, hots, Dillmann—ek Oxford—eko unibertsitatean zirenez eginarekin.

Berrero Parisen, aduana lanetan murgildu zen, Munichen erosi *luneta meridianoa* Estrasburgon barrena Marseillera igor ziezaioten. Abuztuaren 16an irakurri zuen txosten berri bat Elkartean Etiopiako geografiaz xehetasun

mukurua emanenez, batik bat herri eta herrixken izenen berri emanenez, bertakoen ahoz entzun zuen bezala. Informatzaileetarik bat Ali Effendi

Massawa—koa izan zela eta zehaztasun handiz jasoak zituela, egunez egun, honek hamaika aldiz Adwa—rako hamazazpi egunetako bidea karabanetan egin baitzuen. Bestea, Fakiet Ahmed, Jeddah—eko merkatari arabea, zeinak emanak zizkion bere arrutetako herrien eta ibaien izenak. Kontatu zien ere nola Arnauld—ek bidali berri zizkion gutunetan aipatzen zituen Nilo Zuriaren iturburuez eta Laku handiez lorturiko albistek. Nola galdetu zion honetaz behin esklabo Gala bati:

— Handia dea lakua?

— Bai, bai.

— Zenbaterainoko handia?

— Putre batek hegan bost egun eta bost gau behar ditu, alde batetik bestera pasatzeko.

Ihardetsi ziola eta Massawa—ko merkatari batek esana ziola gazia zela lakua, Kaffa eta Onaryatik igarotzen zela Gwjub ibaia Combes eta Tamisier—ek beren liburuan ziotenaren kontra, eta Abbai—n hiltzen zela. Haien ziotenez Gwbe ez zen amaitzen Abbay—n, baizik eta Bahr—el—Azraek—en, eta beraz, Nilo Urdinaren iturburu edo ama zela.

Amaitu zuen solasa esanez itzultzera zihoala zehaztasun gehiagoren bila, eta Elkarteko partaide guztiei eskerrak ematen zizkiela bihotzez eskaini zioten laguntzagatik. Louis Breguet—engandik poltsikoko kronometroa, urrezko erlojua eta mila eta berrehun libera hartu zituen eta denek opaldu zioten osasuna eta bidaia zail hartan suerte ona.

Pirmit arma dendan pistola eta txispa batzuek erosi eta Marseillara bidaltzeko enkargua eman ondoren, Parisa utzi zuen Arago—k Niepce eta Daguerre jaunek egindako deskubrimenduaren berri Institut—ari eman zion egun berean, hau da 1839ko abuztuaren 12an, eta Etiopiako bigarren bidaia

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

hasi aurreko azken bisita egin zion Euskal Herriari, polizi pasaporteak adierazten digunez, hots, abuztuaren 25ean Baionan izan zen.

Marseillatik berriro Alexandriara Erroman barrena. Hemen Lord Lamborghini—k irailaren 23an agindu bat zintatu zuen Abbadia eta bere adiskideak zaindoriez lagundurik ziurtasun osoz joan zitezen Civitavechia—raino. Franzonik hautatu De Jacobis kaputxinoa eta honen laguntzaile Montuori izenekoa, Antonekin Erromatik irten ziren karroza batean. Erroma inguruko soroak elurztatuak zeuden. De Jacobis—ek ez zuen astirik galdu nahi eta galderez josi zuen bide guztia, lehenik Anton eta gero honen bitartez etiopiarrek, paraje urrun haien berri eman ziezaioten.

Hemendik Alexandriara, eta Alexandriatik El Kairo—rako bidaia Nilo igarotzean Lefebvre itsas kapitainarekin batera, sukarrek hartu zuten Anton eta bere hiru zerbitzarietarik Joanes euskalduna tifusak joa izan zen. Honek soldadoxka egina zuen Aljerian Arnauld—ekin, eta bere pena adierazia zion Greziako bidea hartu zuenean, soldaduskatik libre gelditzean, ez zuela lipar batez ere dudatuko eta haren zerbitzuan aritzeko prest izanen zela.

El Kairo—n Pruner zientzia—gizon eta mediku zena bisitatu zuen eta egoera politikoaz eta beste hamaika gauza ezberdinez mintzatu ziren, xixea erretzen zuten bitartean eta morroiari noizean behinka eskatzen:

— *Imla ech Chyché ya onala*

Bi hilabete iguriki zituen senda zedin. Azkenean, El Kairon utzi zuen Domingo, baina Suez—era iristerakoan Grebra bularretako minez gelditu zen, eta berriro beste geldialdia pairatu behar izan zuen sendatzen zen bitartean. Anton bitartean lanean jarraitu zuen planoak eginez, bere neurrietan eten gabe, gaur hoteleko terrazatik, bihar mezkitatik, etzi kontsul frantsesaren etxetik, zehaztasunik haundienak lortzearren. Noizbehinka errezibitzen zituen paketeren bat egunkari atzeratuz egina Vattier de Bourville—k igorrita El Kairotik.

Patri Urkizu

Mila zortziehun eta hogeita hemeretzigarren abenduaren 21ean ontzi arabe batean enbarkatu zen, eta bertan Habaxi izena zuen hamazazpi urteko esklabo batekin mintzatu zen luze eta xehe honen lurraldeko ohiturez eta hizkuntzez. Hegoaldeko berotasunak ukitzen zuen heinean hobera jo zuen ere morroiaren osasunak.

Jeddah—en otsailaren bian zegoen, eta Antonekin zetorren A. Fries, margolari ingelesak utzi egin zituen, Mekka Etiopiarri hobetsi baitzion, eta mundu islamiarra kristauari, baina bere zorigaitzerako gertatu zen tamalez, ezen laster han bertan aurkitu baitzuen heriotza gizagaixoak. Jeddahen Frantziako kontsula zen Fresnel jaunarekin mintzatzen zen, zein beti kexu zebilen ez ziotelako Frantzian eskatzen zuen arabiera katedrari buruz inoiz erantzunik ematen. Fresnel en etxean utzi zituen hamasei liburu eta beste berrogei eta hamazazpi Massawa—n kaxa batean sarturik bidaiez eta erlijioaz mintzo zirenak, hauen artean Ludolfek egindako Salmoen edizioa.

1840ko otsailaren erdialdean topatu zuen berriro anaia Arnauld Massawan. Aidine—ren jauregian izan zen topo egitea, eta besarkada handien ondoren esan zion Antonek:

— To, Arnauld, hau duk aitasainduak hiretzat egin dituan merezimenduendako eman didan domina.

Kontatu zizkieten elkarri izandako arazo eta garaipeak. Anton Erromatik iritsi berria zen, eta Arnauld Galla lurraldetik.

Aidine—k bere dibanean erdi—etzanda eta zenbait buruzagiz inguraturik denbora kontu—kontari iragaten zuen. Gerla istorioak, lewendak, gertakizun berriak, era orotariko poemak, eta noiz behinka ipuin erotikoak ere gogoko zituzten.

— Begirazue, Anton eta Arnauld, — esan zien Aidine—k— , ni ez nauzue gudari zoriontsu bat baizik, uste duena egunen batean argiz beteriko mendi baten gailurrean kausitaren duela paradisia. Oso ttipi nintzela utzi nituen sorterrria eta erlijioa, zeren jakin behar duzuenez familia giristino batean jaio

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

nintzen, eta hona non bigotea urdintzen ari zaidalarik bi anaia giristinoen medioz errezibitzen dudan gizonengandik har dezakedan bozkariarik handiena.

Ondoren honako ixtorioa kontatu zien.

Bazen Asiako partean Liburuaren agindu guztiak zuzen-zuzen betetzen zituen merkatari aberatsa, Allah eta profetek zaintzen zutena. Gero eta aberatsago bilakatzen zihoan, karabana bakoitzak munduko alde guztietarik zerbitzari, mota orotariko martxandizak eta opari berriak ekartzen baitzizkion. Bere harema gero eta ederragoa ari zen bilakatzen, haur pollitez erditzen baitziren ama sabel oparoak. Hiriak bere gogo ttipienak errespetatzen zituen, eta bai behartsuek bai eta mezkaitetako fraideek jaun esku-zabal eta donarioz betetzat aitortzen zuten. Bere lorategiak sasoi guztietan lili usaintsuz idekitzen ziren. Iturriak eta itzalak non-nahi. Egun batean erdi-ametsetan dibanean etzanda zegoela suge batek iratzarri erran zion:

— *Allah-ren izenean, lagundu nazazu.*

— *Allah-ren izenean, nere laguntza izanen duzu — erran zuen Marzawane-k. Baina nor zara zu? Nondik zatoz?*

— *Jaun Garairen soldaduek nere atzetik datoz. Ezkuta nazazu, arren.*

Marzawane-k erran zion gorde zedin oibal batzuen atzean, baina sugeak ihardetsi zion:

— *Ez, zure favoritoaren ilajeen ezkutatuko banintz ere nere etsaiek aurkituko nindukete. Entzuidazu, arren. Badatoz. Ez baduzu Allah eta bere profeta gaitzets nahi, ez zaitzu beste biderik gelditzen: Idekazu ahoa zure barnean gorde nadin.*

Marzawane izaturik atzera jo zuen, baina gudarien ahotsa gero eta hurbilago sentitzen zuen, eta erran zion:

Patri Urkizu

— Bego, Allah—en izenean zatozenez...

Sugeak gizonaren eztaurretatik sartu eta haren barnean ostatu aurkitu zuen bezain laster atzetik zetozkionak oihukatu zuten:

— Non dago traidorea? Aileramate fatu beltzek Sultanaren etsaia gordetzen duena!

Marzawane—k erran zien Padixab—en etsaia berea ere bazela, eta handia zuela eta nahi zituzten leku guztiak araka zitzaketela. Zoko guztiak behatu zituzten harengo toki debekatunak barne, eta azkenean halako gizon ona probetxurik gabe umiliarazteagatik damututa oinetan makurtu ziren miresturik haren ontasunaz. Joandakoan Marzawan—ek erran zion sugeari:

— Ez dezazula beldurrik izan. Atera zaitzek, dagoeneko, nere bihotzaren taupadak oztopatzen dizkidaizu eta. Baina sugeak haren bihotz ondotik erantzun zion:

— Zure bihotzaren edo birikaren zatiño bat behar dut eta kosk egin gabe ez naiz aterako.

Eta Marzawan—ek esker gaitza itsusitakoan erantzun zion sugeak:

— Ai inozoa! Zer uste zenuen, bada, nere izaerari uko egin niezaiokeela, ala? Sugea nauzu eta suge gisa behar dut ekin. Ez duzu gutxi aukera ematea.

— Amen! Nere haragi zatirik hoberena izanen duzu, baina utz nazazu lehenago gauzak presta ditzadan nere heriotzak istripu baten ondoriotzat izan dezaten eta ez Allah eta bere profetaren izenean ostatu emateagatik, bestela etorkizunean gizonak ostatu ematetik gibel bailitezke.

Eta Marzawan—ek agindu zion esklabo bati zuhaitz baten pean bere otoitzetako tapiza presta eta bertan ur—xahualdiak egindakoa otoitzak burutu ahal zitzan. Lorategira atera zen, egin zituen bere soineko urezko garbiketak, otoitzak, eta amaieran erran zion eskergabeari:

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

— Orain egizu gogoko dukezuna.

Eta une berean gazte guztiz eder bat agertu zitzaion erranez:

— Zure fedea zin ezazu. Hiru aldiz Allah—ren izena aipa, zubaitz honen hosto bat har, ahoan ezar eta salbatua izanen zara.

— Nor zara zu, bada? — Galdetu zion Marzawan—ek —.

— Profetak igorri nau zure pena eztitzera eta suntsitzera, harrera onaren aingerua bainatz.

Hau erran eta desagertu egin zen. Marzawan—ek ez zuen zalantzarik izan eta erran bezala egin zuen, eta ahotik at irten zitzaion Jainkoaren justiziak belztu eta akabaturiko sugea. Gaiztokak, noski, ez zuen menperatu ahal izan benetako fededuna.

Aidine—k ondoren, kafea zerbitzen zieten bitartean jarraiki zuen ixtorioaren esan nahia argitzen.

— Zergatik ez diguzu Beni Beit—en ixtorioa kontatzen?

Ohartu zen Anton modu horretan izendatzen zutena Bonaparte zela eta nargile freskoa hartutakoan kontatu zuen ahalik eta modurik dotoreenean enperadore frantsesaren bizitza. Ez zioten, noski, haurtzaroko kontuak esaten utzi, zeren haietako batek hasi eta berehala esan zion:

— Utz ezak hori, gizon ospetsu guzien haurtzaroa berdina izaten duk eta mintza hadi gizon egindakoan burutu zituen gerra ekintza handiez.

Kontatu zizkien bada korsikarraren gerla eta garaipenak, hala nola galdu zituen batailak, solasaren gailurra azken partean Santa Helena uhartean preso zegoela heriotza unean ipini zuelarik. Ingurunea gero eta estuago egiten zihoakion, buruzagi haien ahotarik *Allah, Allah*, errepikatzen zelarik maiz, eta batek erantsi zuen:

Gau izarztatuak gozatzearren honelako heroiak baldin badituzte mintzagai, mereziko luke benetan arrotz on mintzaera ezagutzeak.

Patri Urkizu

Arnauld—ek kontatu zizkion Antoni Galla lurraldeko andereei pairarazten zizkieten sufrimenduak eta ohitura benetan basati eta krudel batzuk. Adibidez, ez zirela konforme soilik emeen maginak jostearekin, eta hori ez askietsirik ikusi zuela jimma bat herrian sartzen, neskatxa eder bat jotzen, lurrera botatzen eta beste emakumeek esan ziotenean oraino dontzeila zela, erantzuten horregatik preziski nahi zuela. Etzan ondoren pizti baten antzera lepoa moztu ziola, sabela ireki, bare—sarea kendu eta honekin alde egin zuela.

Omena zen azti batek eskatu ziola sarraski hori egitea nahi bazuen etorkizuna iragar ziezaion.

Arnauld—ek ikusiz Manex bere sorterriko janik gabe eta batez ere arnorik gabe ez zezakeela bizi, eta ezin zuela etsi nagusiarenganako gogo eta borondate on guztia ezarri arren, eritasunek ez baitzuten bakean uzten, erabaki zuen Frantziara itzularaztea Goxo—k oparitutako zaldi ederrarekin. Hau Joinville—ko printzeari oparitzea erabaki zuten eta adieraztea honela zientzi bidaiekiko izandako harrera eta esker ona.

Zaldia Manexekin batera Jeddah—era iritsi zen eta hemen kontsulak Qusair—erako enbarkatu zituen. Ez zen izan bidaia hura, ordea, arriskurik gabea, geroago jakingo zutenez, ezen Egiptoko kostaldean ondoratu zelarik ontzia, biak, Manex eta zaldia, larri—larri igeri salbatu baitziren, azkenean hamaika gora—beheren ondoren iritsi zirelarik Frantziako Toulon portura. Zaldi jabe berriak Algeriara zihoan Aumale—ko dukeari eskaini zion opari hartu berri eta ezin ederrago hura. Garai honetan irakurriko zuen seguruen Antonek Domingo Idiart ABorda@k Gondarretik, 1839ko urtarrilaren 19an idatzi zion beste gutuna, zuela urtea eta zerbait gehiago idatzia eta honela zioena:

Jauna,

Profitatzen niz okasione on huntuaz bi hitzen erraiteko. Zure Jaunaren anaiaren berriak izan ditut duela hilebete bat izanena da, hemen hilebete unen ondarrean, bere leheneko buruko minak bethi atakatzen du.3

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

hilebetez Gallen herrian gerlan ibilirik buruia kasik akhabaturik eta bere gauza guztiak kasik emanik dago. Baditu zenbeit esklaboak, urriak eta kotsak. Kasik oro izan ditu present, badu ere mando bat eta zamari bat izanak present. Mandoak balio du 40 thalariak, zamariak 60 menturaz. Bere leheneko mandoa erosia 11 th. hemen da zuretzat igorria. Neguia finitui da hemen duela 20 egun. Gizon hau itzultzen da honat hanbat fite. Gondarretik 10 egunez ethortzen da. Nabi baduzu zerbait hemendik. Igorrazu diru, zeren gurea finitua baita. Gizon hau hanbat ona da; igortzen baduzu norbait berekin ez da behar eman 4 edo 5 th. baino gehiago pajako.

Nabi baduzu jende bideko hanbat bada hemen eta merke.

Zuk igorri bileta 200 thalarietzat ez da ethorri hunat; erran duzu Mr. Tipel ezarriko zuela barnean letre Alexandriakoa izen duela. Zure anaiak ere: bainan zabaldua menturaz Mr. Tipelek igorri dio Massoako gubernorari, ikusazu.

Othoitzen zaitut beiratzearz xispa batentzat edo pistolet edo sabre, hemen kasik jende guztiak ibiltzen dituzte beti armak, nik nuen txispakoa Anaiak eman du general Goxuri bere adiskideari, berekin da depuis 6 fevrier, 8 mois.

Detyosmot Goxu jauna da erregea herri Godjameco. Erraiten du emanen dioela bere erresumaren erdi balin badu egon berekin, bainan gezurra da hori, ez erdia, menturaz 10gerrena, orai fite hanbat gerla izanen da.

Zure anaia jaunak hanbat bilbatzen du txispa bat Elephantaren hiltzeko hemen behar dute hil. Elephanta edo liona edo beste .

Dominique Borda, zure zerbitzari humila bethi.

Beste gutun honetan ageri denez Domingok bere partetik anaien arteko berri—emaile eta bitartekari lanak egiten zituen.

Patri Urkizu

Gojam aldetik etorria zen Arnauld, eta berriro bertara itzultzeko Tigray eskualdetik iragan behar zuten, baina Nibe, hemengo gobernadoreak ez zituen aurrera joaten utzi. Hau dela eta erabaki zuten hobe zela bakoitza bere aldetik abiatzea gehien interesatzen zitzaizkion parajeetarik, eta gutunez komunikatzea elkarren beharra eta premia ezinbestekotzat jotzen zutenean.

Anton berriro kostaldera itzuli zen, Bizen mendia igo eta neurtzeko asmotan. Garaiko aurreiritzi europarren eraginez oraino karabina bizkarrean zeraman, eta halako batean erorketa baten ondorioz irtendako bala batek begietan zauritu zuen lazki, oftalmia mingarri bat sortuz, honek ez ziolarik abandonatu guztiz Etiopiako bidaiara osoan.

Hasieran ez zuen ia deus ikusten, eta medizinararen sendagarriek ez zioten batere balio eritasuna goxatzeko. Joan zen, beraz, lehenik Aden—era mediku bila, hemen azaroaren hamarrean moilatuz. Ez erremedio berezirik ez eta hobekuntzarik ediren ez zuenez, ahalik eta azkarren bapore ingeles batean El Kairo—rants abiatu zen, Hodeydah—en eskala eginez.

Hodeydah—ek Itsas Gorriko kostan dauden beste herrien antza handia du, eta ur aski sakonak bertan aingura hondoratzeko. Halere, kapitainak aingurak hondartzatik kilometro batera bota zituen. Batel tipietan hondartzaratu ziren eta hemen beren bizkarrak eskaini zizkioten gazte batzuek oinetako eta jantziak busti ez zitzaizkion, baina jakin zutenean giristinoak zirela mespretxuz alde egin zuten berehala aldamentikan eta oinak uretan sartu behar izan zituzten eta arropak busti. Arnauld, bi etiopiarrek eta laurok bazihoazen fardel eta poltsekin eta aurreko egonaldian ezagutu Petros merkatari giristinoaren etxera jo zuten. Hau, ordea, memento hartan musulmanen eraso beldur zen eta atean behin eta berriro jo behar izan zuten ireki aitzin. Behatu zuen karrikan norbait ba ote zegoen eta ziurtatu zenean inor ez zebilela inguruan, sarraraziz esan zien:

— Barkaidazue, baina ni naiz hiri honetan giristino bakarra eta izuak hilko nau, fanatikoek nere eskuei urrea dariela gameluen titiei esnea bezala uste baitute.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

- Ostatu emanen al diguk?
- Konprenituko duzue, egoera honetan ezin dut.

Ez zien utzi, bada, zokorik ttipiena ere atsedean hartzearren, eta Jussef Effendi notablearengana jo zuten. Honek abbadiatarrek zeramatzaten bi morroiak saltzea proposatu zien. Bata hamabi urteko mutil ilmorma zen eta bestea Chawa—n sortutako hogeita bost urte inguruko gazte sendoa. Ezezkoa eman zioten, noski. Halere, atsedean hartzeko pausaleku bat bilatu zien.

Antonek egunero azokara eramaten zituen bi morroiak erositako janariak karreia zitzaten, eta ohartu zen mundu guztiak mesfidati behatzen zituela eta mesfidantzaren errua berak zuela, ez baitziren aurkeztu lehen mementotik hiriko buruzagiarengana zor zitzaion errespetua eskaintzera. Arnauld—ek erosketa zenbait egin zituen ere plazan, hala nola beste gauza zenbaiten artean Pertsiko tapiz benetan ederra La Mekara zihoan pelegin bati modu merkeaskoan.

Erabaki zuten azkenean bereiztea, eta Arnauld Jeddah—era zihoan bitartean Anton El Kairorako lehen untzian enbarkatu zen. Bidean, harri eta zur gelditu zen itsasuntzian zihoazen beltz batzuek portugesez kantatzen entzun zituenean. Ofizial batek argitu zion, ordea, beltz haiek, antzina esklabo izandakoak, itsaso zabalean preso harrapatuak izan zirelarik baporeko makinetan labeak bizten lan egiten zutela, gau eta egun, inoiz atsedetik hartu gabe. Antonek bere baitan gogoetatu zuen labekari aske haien egoera esklabo izan zirenekoa baino askoz okerragoa zela, egoera tamalgarri batetik miserableagoa zen beste batera igaro baitziren, askatasuna lortu arren Itsaso Gorria garai haietan Ingalaterraren menpe zegoen eta handik zebiltzan frantses bidaiari guti batzuei oztopo eta traba besterik ez zieten ipintzen ingelesek, eta ondorioz hauek bizia arriskuan zeukaten ia beti.

El Kairora iritsitakoan Pruner jaun doktoreak erremedio eta errezeta batzuek aholkatu zizkion. Hauek arindu zioten zertxobait begietako mina eta

Patri Urkizu

hobetu bista. Berarekin zihoan Domingo morroia eri baitzegoen ere, ez zitzaion egoera hartan batere lagungarri, eta eritasuna zertxobait hobetutakoan Frantziara bidali zuen, Audaux jauregiko zalditegia, lurak eta abereak zaintzeko aginduaz.

Aden—era itzuli zenean, hemen gelditua baitzen Arnauld—ekin, zitadelako gobernadore ingelesak egonaldia eta bizitza pairaezina egin zion, eta begi eritasunaren egoera oso ona ez zenez Afrikako kostaldean dagoen Barbera—ko portuan anaia itxaroteari hobetsi zion, barbaro haiek ingeles agintariek baino sentimendu eztiagoak adieraziko zizkiotelakoan, ezen kontua zen, Heines kapitainak zabaldurik zuela ez bakarrik ez zebilela benetan itsu, baizik eta bista oso ona izateaz gain frantses espioia zela.

Pentsatzen zuen ere Antonek Barbera—tik Harar lurraldean barrena Ilmorma—ra irits zitekeela beste arruta berri bat irekiz.

Zaintzen zuen buruzagi somaliarrak baldintza bat soilik ipini zion alde egiten uzteko, hau da, Aden—go agintarien baimena, baina honek Antonen gutun—eskaerari ezezkoa eman zion eta ondorioz, bertakoen Antonenganako joera eta tratua guztiz okertu bide zen. Harar—eko arruta itxi egin zitzaion, beraz, eta anaia bila etorria zitzaionean erabaki zuten helburuak lortzeko, lehenik Afar tribuen lurraldeetarik iraganen zirela Sawa—ko Estatura, higuin baitzioten Tigray lurraldetikan igarotzeari, hemengo buruzagiek bidaia—eskubidea hain modu txar eta garratzez eragotzi eta oztopatu zieten z gero.

Abendua Barberah—en iragan zuten, beti galdezka etiopiar parajeetaz, eta Tujurra, Afar lurraldeko portuan aingura bota zutenean mila zortzi ehun eta berrogeita bateko urtarrilaren hemezortzian, astelehenez, ontzian gelditu zen Anton bere begietako eritasunak bigarren eraso jo baitzion ia guztiz itsuturik.

Hiri honetako buruak ongi errezibitu zituen hasieran, baina jakin zuenean nongoak ziren, berehala adierazi zien ezin zutela han gelditu, eta bere agindua

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

bete zezaten notable guztiak bildu zituen eta haien aurrean esan belak jaso behar zituztela eta handik alde egin.

Denen harridurarako, ordea, Arnauld—ek esan zien ezetz, ez zirela joanen, hondartzan hilko bazituzten ere, alabaina hala gertatuko balitz laster iritsiko zirela itsasontzi handi batzuek mendekua pairaraziko zietenak.

Buila eta zalaparta handiko solasez kexa eta kexa aritu ziren. Azkenean Arnauld—en kaskagogortasunaz bentzututa erabaki zuten Abbadiatarrak desenbarkatzen uztea, eta ingeles agintariei adieraztea kontra erabili zuten bortizkeria, zein, ziotenez, Aden—go itunaz geroztik gogoz kontra eta beldurrarengatik soilik erabiltzen zuten.

Hiru hilabete pasatxo igaro zuten Tujurra—n eta bertakoak heien kausaren alde irabazi zituzten denbora honetan, azkenerako legeak beste modu batean ikusten zituztelarik.

Honelako kasuetan, ziotenez, Sultanak bere boterea gerlari buru baten baitan utzi behar izan zuen eta mezularia bidali zuten Aden—era Itun haustearen adierazpenarekin. Gobernadore ingelesak berehala ajente armeniar bat igorri zuen guri arruta ixteko agindu eta asmo bakarrez.

Nola Afar—tarrek jada Arnauld—en bizia erasotua zuten, ohartu ziren bai Tujurra—n bai eta Barberah—en buruan sartua zeukatela dagoeneko, betidanik bidaiarien eskubideenganako errespetuan heziak izan arren, non—nahi eta nola—nahi europar bat hil zezaketela. Susmoak, tamalez, bete egin ziren, zeren bai Afar—tarrek bai eta Zomel—tarrek laster ingelesen odola isurtzen hasi ziren. Abbadiatarren ustez ingelesek baino arrazoi gehiago edukitzeko modu bakarra, hauek baino lehenago lurralde haietan sartzea zen, eta batik bat, hobeto ikertzea mundu ezezagun hura.

Beraz, maiatzaren hamahiruan ilargiaren irteerarekin itsasoratu ziren eta hamabostean Hodeydah—en sartu ziren arratsaldean, hego haizeak, hemen *azyab* deituak, iparrekialdetik ongixko astindu baitzituen. Kamaran—en eta

Patri Urkizu

Luhayyah—en porturatu ondoren Massawa—ra uztailaren hamarrean, larunbatez, iritsi ziren, Tigray—ra itzuli asmoz.

Bazekiten bertako herri xumea beraiekin zutela, eta Wibe buruzagia, gutxienez Naturari hurbilago zegoenez ingelesak baino adeitsuago gertatuko zitzaien esperantza zeukaten.

Estatu hauetarik sartzeko abadiatarrek alde zuten Ras Ali—ren lurraldeetarik iragan behar zutela, eta Gojam—go partean ibilia zenean Arnauld jada Goxo buruzagiaren adiskide handia bilakatua zela, eta hau, bestalde, Ilmorma tribu zenbaitekin harreman onetan zegoela.

Abba Gabra fraideak zioenez Oromo tribuko Wallo—tarrek oso harrera ona egiten zieten atzerritarrei, eta hauek ostatuaz gain ostalariaren emazteaz gozatzeko aukera izaten omen zuten.

Arnauld aurretik joan zen Adwa—ra, eta Antonek Aylat—en egonaldi bat eman zuen. Adwa—n Arnauld—ek Domingo topatu zuen gaitzak harturik. El Kairon azken aldian Antonek laga zuenetik joan omen zen Euskal Herrira eta sorterrian ezin aurkituz Ekialdean dastatutako askatasuna hala nola Gondar—en eskaini zioten errespetua, batu omen zituen sos guztiak eta erosi ondoren purtxileria pila bat fortuna egiteko asmotan itzulia omen zen. Edo gutxienez abadiatarrak etxerutzen ez ziren bitartean itzultzeko asmorik gabe, herritarrek aurpegira bota ez ziezaioten, *hik ttuk, hik*, lurralde urrunetan eta arrisku izugarrien artean abandonatu zituela nagusiak, bera etxeko sutondoan lasai eta trankilasko kontu—kontari zegoen bitartean.

Ehizean zebilen Arnauld bere zerbitzariekin batetik bestera hipopotamoak eta antilopeak tirokatzen, baina Domingo gaixoa ez zen gai deusetarako eta kamaina pobre batean zetzan.

Soldaduek ehizean gertaturikoak kontatzen zituzten. Nola ehizaturiko orkatzen artean ikusi zuten adar miresgarriak zituen bat besteak baino handiagoa, zein ohartu zenean ez zuela ihesbiderik gizonak erasotu zituen. Bi soldadu zauritu ondoren hantxe akabatu zutela hamaika lantzadaz, eta

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

gertakizuna ospatzeko abildadea zeukaten zenbaitek bat—bateko bertsoak eskaini zizkioten orkatz adar—oker—eder ausart hari.

Esker ematera ere joan ziren Gojam—go muino baten gailurrean Ama Birjinari eskainia zegoen elizara. Leku zoragarri honek Martola Mariam zuen izena eta elizak Zankhautsiko Gure Ama. Beste zenbaitetan errinozeronteak ere ehizatu zituzten.

Irailaren 23an Tarakaba—n zirelarik Anton eta bere morroiak, gau osoa lehoi batek bere orroez esna eduki zituen. Handik aste batera Mariam Wagayro—ko sei zutabeetara iritsi zen, non hilobi egipziarrak harkaitz zurian landuak ikus zitezkeen.

Urriaren hogeian Bizengo kaskoan zegoen monasteriora ailegatu ziren oinutsik, harri latzen artean ongiasko urraturik oinak, ibiliaren ibiliz txoil hondatu baitzituzten. Atarian adierazi ziotenez ez zitekeen emerik batere sarhan, eta gidari saho—tarrak erantsi zionez umorez, euli emeek ere debekatuta zutela sarrera.

1841eko abendua zen, eta Parisen zegoen Jomard jaunari gutun bat bidali zion Adulis—eko eraikin erori eta harri zaharrez mintzatuz, Itsas Gorriko parterik beroenean hartutako Jaman—go izurriteaz sendatzen zen bitartean.

Jakina den bezala Adulis portua Itsas gorrian aurkitzen da eta jada Plinio Zaharrak eta Kosmas Indikopleustes fraide grekoak aipatzen dute, Aksun—go erresumaren itsas irteera bezala.

VII. mendean Etiopiarrak Yemendik erretiratzen hasi zirenean gero eta ahulagotzen joango zen bertako komertzioa, egun Zula herrixka besterik ez dela gelditzen izen bereko badian, Massawatik laurogei kilometrora hegoaldean. Bada lejenda polit bat Saho jendeen artean non kontaktzen den Adulisen suntsiketa. Hona zer dioen:

Hiri honen murrutan bizi zen majizien bat, eta egun batez Yuula Moosa, —Moiserekin lotu behar dena—, bere untzi flotarekin bazihoan itsasoan barrena

Patri Urkizu

Azooliko magoa ezagutu nahiz. Portura iritsi, desenbarkatu eta aztia agurtu ondoren erran zion:

— Oh, anaia maitea, zein gai^zki iragan dudan honunt^z nentorrela, marinela^k asaldatu eta gai^zki tratatu bainaute.

Orduan az^tiak erabaki zuen asaldatuak zigort^zea eta bidenabar bere indarren poderioa erakustea. Ostert^zean begiak ezarri zituen eta maradikazⁱonea bota zuen flotaren kontra. Une berean zerua ilundu zen, tinta bez^ain belt^z bilakatu^z, eta hai^ze izugarri batek kosta gu^ztia astindu zuen uhin jiganteak sortu^z. Itsasont^ziak harkait^zen kontra joan ziren bertan mila ^zati eginez eta istant batean hondoratu^z, eta haietan zⁱhoazen marinela gu^ztia^k itoz.

Yuula Moosa, ordea, penaturik zegoen ez bait^zuen bere marinelen hondat^zea nahi. Horrela ikusi^z zeruetako aingeruek tristuraz bete ziren ere, eta goiko Jainkoak bere haserrearen haserrez eskuak hedatu eta lur[—]ikara eragin zuen, zeinek bere sabelean irentsi zituen Azooliko haranean ziren herrix^kak. Hola bada, izan zen Azooli edo Aduli herriaren hondamendia.

Sendotu zenean ñimiño bat Anton Arnauld[—]ekin batu zen. Hala gauzak, erabaki zuten hobe zutela berriro bakoitzak bere bidea egitea ez egotearren bata bestearen baldintzen menpe, eta Arnauld gerra zibilaren eten ttipi batez baliatu zen Gojam[—]era itzultzeko.

Antonek Adwa[—]n bost hilabete iguriki zituen. Hemen zegoelarik De Goutin[—]ek diru kontuen bitartekari egiten zion, libera frantsesak talaritan trukatu^z, esker onez Antonek maiatzaren 20ean sable abiziniar bat igorri zion, eskumuturra errinozeronte adarrez egina, eta zilar zatiz hornitua.

Domingoren gutun berri bat errezibitu zuen 1842ko maiatzaren hogeita zortzian zinatua, honela zioena:

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Jauna,

Egun eskura erori izan zaut zure uztailaren 22ko letra, erdia errea, bainan ez oro, zeren heskualdunen hitzak ez baitira behin ere arras erretzen ez galtzen, zeinetan erraiten baitzinerautan ihardetsiko zinuela luzez. Zure letrarik ez dut izan errezi bitu. Ez dakit galdu izan denez bidean. Izkiriatu dautzut bemendik 3 edo 4 aldiz orain artean.

Heskualdunek bethi beren hitza atxikitzen zituzten eta erraiten bezen beren arranguak.

Zure zerbitzari heskualdun bat, haspandarra.

(Dudatzun dut heuskara ahantzi duzula).

Herriz—herri gerra zibila pizturik baitzen, guztiz arriskutsua zen bideetan zehar abiatzea, eta Antonek bost hilabete egin zituen Gondarrera bigarren aldiz iritsi aitzin. Hau, 1842ko ekainaren 25ean gertatu zen, euri, ekaitz, ihurtzuri eta tximisten artean.

Gondar hiria bertakoen deituraz *Fasil Ghebbi*, Fasilades erregearen menpean, XVII. mendean erresumako hiri nagusia bilakatu zen eta gaztelu eta eliza ederrez jantzi eta bete.

Tana lakuan Anton uharte bateko monasteriorantz urriaren lauean zihoala Aita Mamoge inguruan, ekaitz bortitz batek astindu zuen ontzia iraultzeko arriskuan ezarriz, tximistak zeruak urratzen zituzten bakoitzean lemazainak izuak harturik, *Abbo, Abbo, Abbo* errepikatzen zuen, hau zela uste baitzuten alde honetan ihurtzuri eta tximisten nagusia.

Abba Guda izeneko agure zaharrari galdera piloa egiten zizkion Antonek, gaztetxoak baino berritsuagoa baitzen, eta ixtorio pollitak kontatzen zizkion honek. Hona bat.

Patri Urkizu

Behin batean gure zeruetako jauna jaitsi zen lurrera eta herrixka batean sartu. Ura eskatu zuen, eta nehorke ez zion edaran, atso behartsu batek ezik, zeinek esne kaikua eskeini zion. Jainkoak erran zion, ortzegun gauean herritik atera zedila eta aldameneko mendirat igo bere seme—alaba eta artaldeekin. Biharamonean herria desagerturik zen eta laku batek betetzen zuen haren lekua.

Ixtorio bera kontatzen zuten Agaw—tarrek Kaxingi lakuaz, eta Afar—tarrek beren ur gazizko lintziraz. Noski, ipuin hau mundu zabalean hedaturik dago aldaera ezberdinetan.

Etiopia osoan bada beste ipuin bat aski hedatua, esan nahi baita, gizon—zakurrena. Ziotenez, herrialde batean gizonak andereek behiak jaisten eta etxeak zaintzen zituzten bitartean zakur ziren bilakatu. Zakurrek kanpoan zituzten igarotzen gauak eta egunez behiak gordetzen. Ixtorio honek, noski, Herodotoren kinokefaloen fabularekin antza handia du.

Leku batetik bestera joateko modu eta ezberdintasun handiak ziren garai hartan eta egun. Hala, zaldun batek Gondar—etik Inarya—rako bidea hamabost egunetan egin zezakeen, baina karabana handi batek, segurtasun handiagatik eta zeraman abioagatik hilabetea behar zuen. Bestalde, Antonek zeuzkan mapak ez ziren batere zehatzak eta fidagarriak, herrien izenak batetik bestera asko aldatzen baitziren.

Laguntzaile lanak egiten zituen Ahmed—ek bi hitz soilik zerabiltzan iparra, hegoa, ekialdea eta mendebaldea adierazteko. Galdetzen ziotenean non zegoen kokaturik lekuren bat beti berdin ihardesten zien:

— *Fock.*

Eta iparraldera seinalatzen zuen, edo eta hegoa eri puntarekin adieraziz esaten zien:

— *Tabt.*

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Jakin izan zuen Antonek Maab—eko zenbait paraje guztiz arriskutsuak zirela, zeren hango batek kontatu zion ikusia zela egun batean berrogeita hamar pertsona baino gehiago hiltzen handik pasatzerakoan.

Maquina eta Darita—ra joateko bidaia antolatu zuen, bertako komentutan eskuizkribuak erosteko asmoz, zenbat eta bilduma osatuago eta ederragoa lortzen zuen hainbat eta zehatzago Etiopiako egoera fisikoa eta morala ezagutaraziko zuelakoan .

Eskuizkribu batzuek falaxa behartsuei erosi zizkien, hala nola Abba Ahwan—i . Besteak berak pazientzia handiz kopiatu zituen edo kopiarazi. Kopiagileen artean bazen bat izkribatzailerik hoberentzat jotzen zutena. Dabbara Hadgu deitzen zen eta ezkerra zen. Antonek *Erregeen Historia* zekarren eskuizkribu eder bat kopia ziezaion nahi zuen, baina honen kopia—baimena lortzeko bi urte pasatu ziren eta beste bi kostatu zitzaion kopia bukatzea bere artea hantusten zuen artista ezkerari. Eta egia esateko, kopiagileen mantsotasun honek ia bere onetik ateratzen zuen Anton.

Arnauld—ek lagundu zion ere bilduma osatzen. Bere zerbitzuan hartu zituen bi apaiz—idazle eta negu osoan eduki zituen kopiatzen Tedowa Mariam—go monasterioan bakarrak ziren *Historia Urtekariak*. Berak oparitutakoak dira ere paper arabez kopiarazi zuen bildumako 52a, *Erregeen Historia*, benetan liburu eder eta iduri zoragarriz horniturik dagoena, alegia, 98a, *Henoehen Liburua* den 99a eta 104 zenbakiz katalogatu zituenak.

Juste de Urbin, Kartum—en martir bezala bere egunak bukatu zituen frantziskotar misiolariak ere lagundu zion 194 zenbakitik 217rakoak eman baitzizkion. Batzuek erosiak, besteak berak kopiatuak eta moldatuak zituen, hala nola frantses—amariña hiztegia eta azken hizkuntza honen gramatika frantsesez idatzia. Halaber Antonek bere katalogoan aipatzen duen azken eskuizkribua (234. alea), *Zara Jaikoben Axterketa*, zeinetan dena ukatzen bide delarik azkenean ateismoa bera ondorioztatzen eta aldarrikatzen den. Beraz, benetan bitxia.

Patri Urkizu

Eskuzkribuak oro ziren balios eta harri eder preziosak baino maitagarriagoak Antonentzat, hala nola Paulok idatzitako *Misterioen Liburua*, bi zutabeetan eta 230 folio duenak, zeinek baduen saihets batean ohar bat. Honen arabera Sarza Mariam—ek erosi zuen eskuizkribua bost behien truke, eta eskomunikatuta geldituko zen saltzen zuen fraidea, halere, hauetariko bati erosi zion, eta hark bozkario handiz hartu zituen ordainez emandako thalariak.

Gehienak Testamentu Zahar eta Berriko liburuen kopiak ziren, noski, baina baziren heien artean apokrifotzat jo zitezkeenak, hala nola Hermas—ek, II. mendeko profeta judu—kristauak idatzitako *Artzaina*, Antonek berak kopiatu zuena Gindaginde—ko monasterioan, perla bitxi eta arraroa, zeinen berri Abba Jacobis apezpikuak eman zion, eta zein bere balio bereziagatik latinera itzuli eta Leipzig—en argitaratuko zuen 1860an.

Ez ziren falta besteen artean kalenderrak, hala nola kosmografia, musika, poesia, astrologia, medizina, eta hizkuntzari buruzko hiztegiak gaika antolatuak. Sendagintzakoak, kakeria, bista galtzea, epilepsia, xixare eta beste ohiko eritasunen kontrako errezetak ekartzen zituzten. Hiztegiak, *Sawasim* deituak, esan bezala gaika moldatuak zeuden, harri ederrak, landareak, zuhaitzak, ofizioak eta horrelako hitz zerrendak ematen zutelarik, beraz, aski zail zitzaien abezedeka moldaturik ez direnez hitz berezi baten bila zebiltzanean hau aurkitzea.

Eta aipatu behar da ere, heriotza bezperan Parisen arabieratik itzultzen ari zen eskuizkribua. XVI. mendean Muhammad Ahmad, Gragne deituak egindako konkisten eskuizkribua. Jakina den bezala, Ahmed—en pean iragandako bederatzi urteak Afrikako iparraldeko historian izugarrienak gertatu ziren. Pasatzen zen hiri guztietan herri giristinoak behartuak zeuden hautatzera edo Islama edo Herioa. Probintziaz probintzia ibili zen bere gudarosteek dena sutan ezartzen zutelarik, andere gazte eta zaharrak bortxatzen eta ezpataz akabatzen gizonak. Bidean aurkitutako eliza guztiak biluzturik gelditu ziren, eta

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

baziren batzuk benetan aberatsak zirenak, hala nola teilatuak urrezko hariz apainduak zeuzkatenak.

Beste batzuek, adibidez, liburutegi ederrak zituzten zaharrenak suntsiturik gelditu ziren sutan. Horrela bada, Lebna—Deugel garaiko buruzagiak Portugaleko erregeari laguntza eskatu zion, eta honek Kristobal de Gama igorri zuen bostehun soldadu ongi armatuekin. Hauek Assnaf—Sagad, europarrek Klaudio deitu zutenaren garaian iritsi ziren eta Gragne sultanaren eta bere musulmanen eraso gelditzea lortu zuten 1585. urtean. Halere, probintziak oro behar bezala babestu ezinik kostaldeko portu garrantzitsuenak behin betirako turkiarren botere maltzurpean gelditu ziren.

Igorri zizkien Antonek 1842an zenbait gutun Jomard eta Avezac jaunei egiten ari zen lanen berri emanaz, eta urte bereko azaroan Tana lakuari buruz abiatu zen, eta bukaeraldean Lalibalara iritsi, non berriro eritasunak eragotzi zion jarraitzea Takkazze—ko itur—buruetaraino.

Gondar—era itzultzerakoan bere arrutarik gogozkoena hartu zuen: Mota, Dabra warq eta Yawis. Hemen karabanarekin zihoala txarranpinak jo zuen. Yajibe Gojam—en eta Abbay ibaiaren ezkerrean zeuden Gudru, Jimma eta Nonno tribuen ohitura eta hizkerak aztertzen ibili zen. Abbay ibaia igarotakoan aholkatu zioten ordularia gorde zezan Ilmarma jendeen artean haren distirak gutizia sor zezakeelako eta bizia arriskutan ezar.

1843ko urtarrilaren hamaseian, astelehenez, Agisa Takla andereentzat itxia zen saindutegetik irten eta hamahiru ordu eta hamar minutuko bidea egin zuen, Etiopian egin zuen ibilaldirik luzeena. Denak leherturik zeuden, astoak eta mandoak ere. Behealdean zirenean aire beroak sukarra sorrarazi zion, baina Lanko goialdeko hotzak mundu guztiari on egin zion.

Maiatzaren azken egunean F. C. Berke bidaiari ingelesaren bisita izan zuen, eta nola une hartan herriko jendez inguratua zegoen, Berke—k ingelesez mintzatu zitzaionean berak amariñaz ihardetsi zion jende guztiak jakin zezan

Patri Urkizu

zertaz ari ziren. Hau mespretxutzat jo zuen ingelesak, eta mendekuz libelo bat idatzi zuen *Athenaeum* aldizkarian gezurtizat joaz bi anaiak. Zazpi urte geroago oraindik 1850eko uztailaren hamaikan Londresen Arnauld eta Xarlesek Lord Palmerstoni bisita egin zioten bitartekaritza eskatuz bidaia berrietan ingelesen partetik eragozpen eta oztoporik ukan ez zezaten.

Bidaiaren eskuzkribuaren amaieran Antonek gogoeta hau egiten du ekainaren 22an.

Giza zientzia bere teknikari esker lortu edireiteak miresgarriak izan arren, oraindik iritzi faltsuz betea dago, eta denboraren poderioaz deuseztatuko diren sistemez eraikia. Benetako argia gugandik urrun dago, eta soilik Fedeak somarazten du.

Geezez XIII mendean idatzitako Biblia, aspaldian galdurik zegoena, Antonek topatu zuen eta Lalibelako eliza batean utzi, liburu barnean amariñaz honakoxe idatzita utziz:

Anton eta Mikel frantziarrek Lalibelako Mikel deunaren elizari oparitu diote Jesu Kristoren irudiaren oroitzapenez eta Jainkoak paradisuan zain ditzan. 1835an etiopiarren kalenderraren arabera, baina europearren 1843an.

Jakin izan zuen Gondar—era Jomard jaunak bidalitako gutun batez, nola Geografia Elkartean saritu zituzten zilarrezko dominaz ekainaren 17an egindako bileran, hala Anton nola Dease & Simpson ipar—amerikarrak eta Schomburgk esploratzaile alemana egindako deskubrimenduengatik.

Lehen aldiz Oromo lurraldean 1843ko uztailan zegoela, eta buruzagi gerlariak beren artean eztabaidatzen ari ziren bitartean denbora kontu—kontari pasatzen zuen. Sekulan bere herritik atera ez zen hogeituro urteko gazte batek kontatu zion ixtorioak Odiseoren Polifemorenarekin eta Euskal Herrian Tartalo izenarekin ezagutua den kontakizunaren antza handia zeukan, eta beraz honek pentsarazi zion Polifemoren fabula ez zukeela Homerok asmatu, eta nazioen bereizte garaia baino lehenagokoa zitekeela.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Beste herrialdeetan ere hain ezagun diren andere fideltasun gabeari buruzko ixtorioak kontatu zizkioten. Honelaxekoek oso harrera ona zuten gizonen artean, irri karkailaz lehertzen entzuten baitzituzten.

Herrialde hauetako andereek ez dute amodioaz jeneralean ia ideiarik ere. Lirain, gozo, ezti, maitasunez beteak dira, baina era berean ahul, malenkoniati, menpeko eta aski zozo. Iraultza eta bortizkerien artean bizi dira, eta beraien akats, oker eta hutsek areago merezi zioten konpasioa gogorkeria baino.

Omoro edo Inaryan lurralde hau Abba Gibo buruzagiaren menpean zegoen, zein adimenez, ausardiaz, eta gaiztakeriez garaiko tiranorik handienetarikoa izatera iritsi zen. Han ikusten zuten lehen europarra zen Anton, eta horri esker bere arrakasta ziurtaturik zegoen. Hau mantentzearren bertako hizkera ikasi zuen, hala nola usu, ohitura, sineste, eta literatura.

Anton idazten ikusten zutenean berehala inguratu eta eskatzen zioten etorkizuna igar ziezaien. Esnea eta gari beltza, — Gudruko ohiko jan—edanak—, eskatzen zizkiotenez, berak ere esne katilukada bat galdetzen zuen norbait hurbiltzen zitzaionean eta honela bezeroen kontura bizi zen. Galde nagusia *buda* egitea eta bekaitzaren kontrako erremedioak ziren. Horrela asmatzen hasi zen hauen kontra *Aita Gurea* paperean idatziz. Emakume batek haur bat eskatzen bazion *Agur Maria* idazten zuen, eta galdea senarraren emazteen bekaitzetik gibelatua izatea, karitate ekintza bat agintzen. Eta azkenez liluramendu handienetan Gudru herriaren konbertsioaren aldeko otoitza izkiribatzen zuen. Horrela bada, otoitz guzti hauek helburua lortzen ez bazuten ere, bederen inori ez zioten kalte egiten.

Herri hauek gero eta interesgarriago egiten ari zitzaizkion, ezen ohartzen ari zen mendebaldearekin inolako zibilizazio harremanik eduki gabe, mantentzen jakin izan zutela Jainkoak izaki guztietan ezarri dituen naturazko dohainak, moral eta justiziazko legeak, on izatearen eta aitzinamenduaren funtsezko ideiak.

Patri Urkizu

Irailean Sukako merkatuan ikusi zituen esklabo pila salgai, hauen artean amona bat, honen alaba eta ilobarekin, beste haurrak kontatu gabe. Honek gogoetarazi zion Antoni esklabotasunaren aurka ordura arte erabilitako erremedioak ez zutela ia deusetarako balio, eta beste bide bat hautatu behar zela. Alegia, jende prestu bat barreiatu behar zela herrialdeetan, hauek erosi behar zituztela hamar edo hamabost esklabo hobeto hornituak ikusten zituztenak, eta ondoren Europan behar zirela hazi eta hezi. Zibilizazioaren aurrerapenez ongi jabetu ondoren berriro behar zirela bidali beren herrialdeetara askatasunaren eta zientziaren predikari laikoak bilakatuz, bakoitza bere herrian.

Azarora arte eutsi zuen Gibo buruzagiak bere ondoan. Ikerketak oztopatu zizkion arren bere hamaikagarren anderearen bila Kaffa—ko hiriburu zen Bonga—ra joan behar zuen espedizioan joateko hautatu egin zuen. Mila pertsonak osaturiko gizon ilarak opariak eskaintzera zihoazen.

Ailegatuak zirela Arnould—i gutun bat idatzi zion egoeraren berri emanek. Nola ia leku guztietan bezala, jaun ala xume izan gizakien jaidura berdintsua den, hau da, arraro eta bitxi iruditzen zaiena beraientzat gordetzen saiatzen direla, gizakia ala gauza izan berdin zaiolarik, lehen europarra zenez Gibo—ren kortean berdin gertatzen zitzaion Antoni, Gibo musulmana izanik eta Kaffa—ko erregea giristinoa, tutik jakin ez arren giristinotasunaren hastapenez berdin zen.

Boterearen partaide zelako lortu zuen, halere, egonaldia Kaffa hirian hamaika egunekoa soilik gerta zekion, ezen etiopiar trafikante bat baino gehiago hura laga aurretik edo hura uzteko baimena lortu baino lehen han hamar edo hogeit hamar urte pasa beharrean aurkitu izan baitziren.

Bestalde, Kaffa—ko herrialdeko erregearen eztei—anaia gertatu zenez, opari bat zor omen zion honek, beraz, eta Aizine izeneko Gimira esklaboa erregalatu zion. Hau ez zen beltza, gorria baizik. eta Kafako hizkerak mintzatzen zituen, baina oso baratxe—baratxe ikasten zituen hizkuntzak, eta amariña apurñoa bazekienean Massawa—n hil zitzaion bat—batean.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

1844ko martxoaren bian irten zen hemendik karabana batean, zein, esan ziotenez, oso arin eta azkar zebilen, bere ustea guztiz kontrakoa izan arren. Lagun berri hauek ez zuten gelditu nahi inon non ez bazen ibai ertzetan, hezetasonaren babesean. Ez zuen konprenitzen, oraindik zergatik arraio ez zuten muino gaineratik ibili nahi, eta igotzen zenean gailur batera bere teodolitoaz neurriak hartzera, guztiz mesfidatzen ziren.

Horrela bada, Antonen izariak erabat baldintzatuak gelditu ziren, ez baitzuen lortu ahal izan nahi zuen lekuetatik pasatzea. Ikusitakoak ikusita, eta pasatakoak pasata atzera itzultzeko ez zitzaion batere gogorik gelditzen, eta gainera sos apurrak jadanik ahitzen hasiak ziren.

Gerra zibilak hiru hilabetez geldiarazi zuen Gojam—en eta eurite eta uholdeen aroa zenez, Takkaze ibaia ezin baitzen iragan, Gondar—en gelditu zen.

1844ko uztailaren 30ean anaia berriro topatu zuen Gondar—en, eta egun eta gauak osorik pasatu zituzten elkarri gertatutakoak kontu—kontari. Anton bere aurkikundeez eta Arnould bere ehizez. Did—esa—z eta honen iturburuez, geografoek aipatzen ez zuten ibaiez mintzatu zitzaion Anton, eta nola bere ustez Nilo Zuriaren iturburuak zitezkeen, eta hau

Niloren adar printzipala zenez, sorburu eta sehaskarekin jo zuen. Etimologiak ere argi zezakeela, adibidez, emanik $d > l$ bilakatzen dela sanskritotik latinera iragaterakoan, esate baterako, *bad*—etik *balneum* ‘mainu’ sortuz, berdin eman zezakeela *Did—esa* $>$ *Liles* pausua, eta beraz, *Niles*, *Nilus*, *Nilo* gerta zitekeela.

Abuztuaren 31an Majac—eko zubia iragan zuen Antonek Itsas Gorriari buruz. Abba Harbu—k argitu zion, ibaietako jainkoei opariak eskaintzen zizkietela otoitz bat eginik alde z aurretik. Pobreek mirra eta aberatsek abere bati lepoa moztuz uretara hau boteaz honako hitzok erabiltzen zituztela:

Gizonen naiṣ errege

Patri Urkizu

Eta hi ibaien,

Gaitezen adiskide

Eta dezagun bake.

Oraingoan bai izan zuela ostertza patxadan behatzeko eta nahi zituen neurri guztiak hartzeko aukera. Naturaren izaerari dario berez ibaiak erreka ezberdinetan banatzea. Garai hartan Nilo ibaiaren iturburua bilatu nahian zebilen, eta uste zuen Uma, Gojab eta Borora erreken artean osatzen zutela Nilo Zuriaren goi—burua.

Azaro hasieran topatu zuen berriro Domingo. Sennaar aldetik iritsia eta peko erreka joa, heriotza—zorian. Makala baino argalago, sukar beltzek jana, betondoak ubel eta bertan itsatsirik bezala begi dizdizariak. Ikusi zuen bezain laster zertxobait bizturik honela mintzatu zitzaion euskara, frantsesa, arabiera eta amariña hitzak nahas—mahas:

— Esker anitz, etortzeagatik, Anton, *ça va?*

— Domingo, bizi hiza?

— Bai eta hi, *endet neh!* 'nola habil?'

— Ni untsa eta hi?

— Untsa, *salam aleikum!* 'bakea zurekila'.

— Bejondeiala!

— Bai, *Allah kerim!* 'Jainkoa handi da!'

— Gaisorik hago, alajaina.

— Bai, *Sheitan afrit* 'Debru arraioa!'

— Lasai, Domingo.

— Behazak, Anton, bart izandako ametsa kontatu nahi niake.

— Lasai. Ea, bada, kontaidak nahi duana ez diagu presa handirik eta.

— Arrautza handi baten antzeko sala handi eta mugagabeen nengoen.

Erdian gidari nagusia zirudien agure bat ageri zen,. Nere aitari bezala ile zima luzeak bizkar gainean zintzilikatzen zitzaizkion eta aldamenean dena xuriz

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

jantzitako edertasun liluragarrizko anderea ikustatu nuen. Agureak galderak eta galderak egiten zizkidan eta haurtzaroko kontuak ere oroitarazten. Ihardetsi nahi nuen baina ezina zitzaidan. Halako batean anderea desagertu egin zen. Inguratzen ninduten beste agureek nitaz hitz egiten zuten baina nik ezin nien deus konprenitu. Gero eta ilunago ziren entzuten nituen hitzak. Egoera hura ezin pairaturik haboro oihu egiten entseatu nintzen, Argia!!! eta bat—batean kriseilutxo bat ageri zen, su—lama dantzari, baina sala iragandakoan itzali egin zen. Zuk utziko bazenu hemen zure zerbitzariren bat zuzi batez uste dut ilunpetarik libratu eta aske nintekeela, eta sukar beltz hauek ihesi joanen zitzazkidekeela. Arren, zure zerbitzariak obedituko zaituzte, esaiezu hori, neri ez baitidate kasurik batere egiten eta.....

Hantxe zetzan Domingo gizagaixoa betondoa gero eta ilunago eta mihia gero eta nahasiago. Aurpegia zuri—zuri eta gorputza dardarez. Eskatutakoa agindu zion eta agurtu egin zuen. Ilea jada urdindua zeukan bere jarraitzailetarik zaharrenak, xehe—xehe kontatu zionean ametsa esan zion:

— Egia esan, maiztxo suertatu izan zait entzutea lelokeria franko ametsak esan nahi dutenaren inguruan, baina honetaz ez daiteke izan inolako dudarik. Esan nahia garbi baino garbiagoa du eta aratz—aratza. Sala handi hura zerua dateke. Agurea, zeru—lurren sortzailea eta justizia emailea, hau da, Jainkoa. Andere eder eta zuriz jantzia Ama Birjina. Kriseilua amaitzen ari zaion bizitzaren arnasaren irudia dateke, noski, eta, beraz, ez zaigu gelditzen bere arimaren alde otoitz egitea baizik .

Ziotenez, oilarraren kantua aitzin egindako ametsak deabruarengandik zetozen eta ondorengoak aingeruengandik. Galla herritarrek, bada, uste zuten oilarrak lehen kanta botatzen zutela, zeruko ateak irekitzen zirenean aingeruak jaits zitezen, hauen hegalaldia sentitzen baitzuten. Ametsak ia beti beren kontrakoez argi zitezkeen: garaipena amesteak porrota iragartzen zuen, norbaiten etorrerak berandu iritsiko zela, zuhaitz hil batek norbaitek peko

erreka jo zuela, eta irudimenak zakur basa eta errabiatu bat jaten sortzen bazuen, honek urte bateko gosetea adierazi nahi zuela...

Handik egun batzuetara jakin zuen Antonek hila zela Domingo. Gorpuaren inguruan bildu ziren Arnauld, John Bell eskoziarra, Abba Jacobis artzapezpikua eta Anton, hala nola zerbitzari afrikarrak. Aitorle koptoa ere hantxe zegoen, eta, hileta elizkizun triste eta xume batez eman zioten azken agurra.

Domingoren ongi apurrak bildu eta enkantean ipini zituen Antonek ordainetan arrebari sos batzuek bidaltzeko asmotan, baina Waizoro Manann—ek beretzat hartu nahi zituen ondasunak, zeren hasieran berritasunagatik onartu bazuen ere enkantea, gero bere eskubide eta botereaz baliatu nahi izan zuen bereganatzeko ahaleginean. Arnauld—ek kontra zertxobait egin arren, ikusitakoan harremanak gaixtotzen ari zirela eta arriskuan Waizoro—ren diru—gutizi eta grina neurrigabeen aitzinean, handik alde egiteari hobetsi zioten eta bertatik partitu egin ziren kostaldera.

Imakullo—n zegoela 1844ko azaroan bildu ahal izan zituen Antonek falaxei buruz hartutako ohar ezberdinak, eta hona hemen txosten laburpentxoak, zeinetaz baliatu ahal izan den Steven Kaplan falaxez idatzi liburu berri batean.

Falaxak Agaw arrazakoak dira, eta ez dute juduekin inolako antzarik, ez itxurarik. Zerabilten hizkera *huarasa* deitzen da eta Agaw—tarren hizkeren ahaide da, baina orain haur guztiak amariñaz mintzo dira, eta jada ez dute ezagutzen beren gurasoen hizkuntza. Antonen hiztegi albiste emaileak maiz zituen duda—mudak eta haurtzaroko oroitzapenez baliatzen zen.

Falaxak beren buruak Jerusalem—etik etorritakoak bezala jotzen dituzte, eta beren iritziz daukaten izenak exiliatu esan nahi omen du. Ez du uste Antonek, ordea, etimologia hau zuzena denik, zeren —*xa* atzizkia khamtonga hizkeran 'anitz' esan nahi duen, eta horrela ditugu eratuak *arxa* 'laborari' (*ar* 'gari'), eta *lakxa* 'hiztun' (*lak* 'hizkuntza'), beraz, amariñaz *fal(a)* 'antze,

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

zuhurtasun' adierazi nahi duenez, eta falaxa guztiak langileak, *tabi'arotz'* direnez, hor izanen luke etorkia eta hori esan nahiko luke, falaxa hitzak, hau da, langileak.

Falaxak Damot handian, Kafa—ko partean, Gondar—en, Walkait—en, edonon aurki daitezke, baina batik bat Agaw tribuak diren lekuetan.

Falaxak, diotenez, luzaro mantendu zuten beren askatasuna eta izan zuten azken erregea Biblian ageri den Gedon izan omen zen, zeinek hil aurretikan historia liburu guztiak erre omen zituen.

Falaxak, diakono batek esaten zionez Antoni, ez zuten kristauen bataio absurdoa ezagutzen beren artean, eta mutila bada jaio berria berrogei egun baino lehenago, eta neska bada laurogei, apaiz batek ipintzen zion haurrari izena, uretan pulunpatzen zuelarik, zeremonia egiterakoan, hitz hauek erabiltzen zituztelarik otoitz hasieran: — *Israelgo Jauna, Jainkoa benedikatua izan dadila...*Zeremoniak irauten zuen bitartean, ama lohi eta zikin bezala ikusia baitzen denda apartatu batean egoten zen bakar—bakarrik.

Falaxen artean aitortpena derrigorrezkoa da, hizkuntza etiopiarrek, aldiz, ez dute ezagutzen hitz hau. Eta norbait aitortpenik gabe hiltzen bada ez zaio oroitzapen bestarik ospatuko. Norbaitek komunioa aitortpenik egin gabe hartuko balu, eta berehala hilen balitz, zuzen—zuzenean lurraren sabelean datzan eta ilunpez beteriko lekua den infernura joanen litzakete.

Falaxen aitortzea, giristinoena bezala, ahalmenez beterik dago, eta, esate baterako, falaxa bat giristinotasunera lerratuko balitz eta gero bere gurasoen federa berriro itzuli nahiko balu aitortlearengana jo beharko luke. Honen eskuetan legoke zein penitentzia ezarri, kasu gehienetan hau berrogei eguneko baraua egitera mugatzen delarik. Ondoren, elizkizunetan katekumeno berri gisara sei larunbatez parte hartzera behartua dago, eta zazpigarrenean komunioa hartzea zilegi izaten zaio. Har daiteke, ordea, komunioa aldi ezberdinetan tartean aitortu gabe edo absoluziorik hartu gabe. Inor ez da gelditzen urtean

Patri Urkizu

behin gutxienez konfesatu gabe eta garai batean arratsaldero konfesatzen ohi ziren egunean zehar egin bekatuen barkamena eskatzeko.

Falaxen artean zirkunzisia nahita nahizkoa da, eta jaiotza larunbatez gertatuez gero, zazpigarren edo zortzigarren egunean egiten da. Haurra hilez gero epe honetan ekitaldia pairatu aitzin zeruetara igoko da, baina zirkunzisorik gabe zazpigarren egunean hilko balitz ez litzateke sartuko zeruetako erresuman. Ezaguna da Etiopiako giristino guztiek lepoan seta urdinezko kuttun bat daramatela. Abba Salamak asmatu zuen hau bedeinkatu zituenak ezagutzearren eta honi *maatab* deitzen diote. Arrazoi beragatik Gojam aldean harri zuri bat zintzilikatzen diote lepotik jaiotze-berriari. Fraide pobreek hari gorria darabilte, eta Sodaman hari beltza. Ez da harritzeko, beraz, falaxak ikustea juduen kuttuna bailitzan giristinoen *maatab* delako honekin.

Falaxek eliza hierarkiarik ez eduki arren fraide zuhur, jakin eta antzetsuena hartzen dute buruzagitzat. Egungo zuzendaria Abba Isak deitzen da. Khoarhwa—n bizi da, eta duen jakintsu fama hain da handia non joaten zaizkion irakaskintza eske irakasle kristauak ere, adibidez, zein den bere ustez Ezekiel eta beste profeten irakurketa zuzena ezagutzeko asmoz. Abba Isak hiltzean, herri biltzar batek izendatuko du ondorengo burua. Diotenez, Abba Sabra eta Abba Tsaga izan ziren monasterioetako bizitzaren sortzaileak falaxen artean.

Falaxa apaizak ezkon daitezke, eta lehen emaztea hiltzen bazaie bigarrena ere har dezakete, baina bai kristau eta bai falaxen artean dibortzioak edo beste ohaide batekin bizitzeak beren funtzioetarako ez gai eta duintasunik gabea bilakatzen dute. Bakoitzak diakono bana kontsakra dezake, eta diakono izan aitzin *akabi* izan behar da, hau da, ogi sagaratuaren prestatzailea. Apaizek eta fraideek lege saindua ez duena betetzen, edo bekatu astunean erortzen eta bizitzen dena eskumika dezakete.

Falaxek bazituzten beren xantreak, baina ez dute giristinoek bezala apezpikurik, eta hauengandik ez dute onartzen ez okelarik, ez ogirik, ez eta

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

irinik. Halere, gogoz hartzen dute gari ale ehogabea. Eta girstino baten etxean jateko zorigaitza gertatuz gero aste osoa iragan beharko du ilar gordinez soilik elikatzen dela, eta zazpigarrenean *masanna* deitu edari garbitzailea edan beharko du. Halaber, hauen etxetik irteten den okasio guztietan soin osoa xahutzera beharturik da, zeinak oroitarazten digun Kristok Ebanjelioan madarika zituen juduen garbiketak. Kasu zenbaitetan, ordea, judu legearen aurka aritzen dira falaxak. Adibidez, jakina da israeldarrak behartuak daudela anaiaren alargunarekin esposatzera, baina, falaxek lotsagarritzat jotzen dute ohitura hori. Etiopiako girstinoek beren buruetako ilajeak txirikordatu egiten dituzte eta badirudi Absalonen istoriaren arabera, gauza bera gertatzen zela juduen artean, baina ez da horrelakorik falaxen artean, zeinek ileak orraztean zimatxo batzuek aske mantentzen dituzten, ekialdeko juduen moduan.

Falaxek entzuna dute munduan zehar badirela beste judu batzuek, baina ez dakite ez non, ez noiztik. Badakite, halere, eta honetan ez dute inolako zalantzarik eta dudarik, Salomonen semea zen Menilek jaunarekin etorritako Levi—ren seme—alabak direla beren arbasoak. Etortzeko zen Mesiaz duten ideia oso iluna da. Begi bat aitzinaldean eta bestea gibelean duen eta, kolpe batez bi mila gizon hil dezakeena dela uste dute Theodoros Erregetzarraren agindua amaitutakoan iritsiko dena.

Falaxa batek esan zionez Antoni, Testamentu Zaharreko igarle anitzen profetia gehientsuenak ez ezik oro betetzen omen zituena Jesus izan zela, baina ez zen inolaz ere jainko. Itxaroten dute *Asai—masi* deitzen dutena, hots, Antikristoa, baina lasai daude ez baitute uste andere falaxa batengandik sor daitekeenik. Aldiz, pentsatzen dute denboren akabantza iritsitakoan Mikel Deunak tronpeta joko duela. Lehen tutuan hezur guztiek beren antzinako kokagunea errekueratuko dutela. Bigarreanean haragiak hezurduan lotu eta mamituko direla. Hirugarrenean arimak sartuko direla gorputz hauetan eta

Patri Urkizu

Jainkoak gure mila urteren baliokide den egun batean epaituko dituela mundu honetan bizi izan diren gizon guztiak.

Abereak hiltzera doazenean lepoa ebaki aitzin eskuin aldetik geez hizkuntzan otoitz honekin hasten dira: — *Israelgo Printzearen eta Munduko jaunaren izenean...*

Falaxek ez dute okela gordinik jaten beste etiopiarrek bezala, eta jaten duten elikadura berezia, piper—beltz, koriandro, itze—kanela eta beste espezieriz oraturiko *gera* deitu ogia da. Hau uztai erako ezpataz mozten da, eta jaterakoan piper xehe eta gurina eransten zaio.

Falaxen kanposantua herritik at dago, hilobiek ez dutela inolako ikurrik, ez idazkirik.

Falaxek sinesteen artean *Zar* deitu lamienak dituzte. Hauek onak direnean zilarrezko eraztun batekin aski kontent gelditzen dira, eta emaileari berehala on egiten diote. *Zar* gaiztoek, ordea, pobrezian murgilarazirik gizakiak peko erreka jo arte pertsekutatzen dituzte, eta inoiz ez da gertatu izan maitasun—jokorik *Zar* izeneko izakien eta Gizonen artean. Uste hau aski hedaturik dago Etiopia osoan, eta falaxek beren gorputz—dardaragileen bitartez deitzen dituzte *Zar* deitu jenio hauek dituzten arazoetan aholku eske.

Falaxen artean ezkontzara dontzeila iristen ez zena harrikatua izaten zen, bere aitak jaurtikitzen ziolarik lehen harria. Egun, aldiz, galdetu egiten zaio norena den kulpa eta kulpaduna gurasoen aitzinera eramaten da. Ukatzen badu, zin egin beharko du eskua buru gainean ezarriz, hots, bere biziagatik zin dagiala esan nahiz bezala. Kulpadunak onartzen badu bera dela egilea, artalde batez ordaindu beharko die birjintasuna gurasoei, eta hala ez badu egiten bere aitagana eramana izanen da, eskumikazio mehatxupean. Beraz, senarrak ez badu emaztetzat hartu nahi emakume ohoregabea, hobenduna ez dago behartuta bereganatzera, gehienetan, ordea, senarrak emaztea onartzen du, horrela dotea handitzen baitzaio.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Aipatu xehetasun eta detaile guzti hauek frogatzen zuten Antonentzat egungo giristinoen arbasoak falaxa konbertituak zirela, edota Frumentius iritsi zenean ez zeudela oraindik guztiz hedatuak Etiopian, Takla Haimanot-en bizitzan kontaktzen den bezala.

Antonek Obo-ra egin zuen bigarren bidaian triangelu neurketa anitz burutu ahal izan zuen, eta bidenabar lege eta arraza gutxi ezagunen berri biltzea lortu zuen. Hauen berri, beti ohi bezala Jomard jaunari ahalik eta xehetasun handienez gutun bidez ematen zion.

Etiopiako gerla zibil etengabeek, ordea, ez zuen uzten nahi adinako askatasunez batetik bestera mugitzen. Horrela Bagemdir izeneko lurraldea uzteko 1845eko martxoraino zain egon behar izan zuen.

Quarata-n, Etiopiako ikuspegiarik ederrenetarikoa duen parajetan zela, zitrondo, laranjondo, kafe, mahasti, eta txori hodeiz inguratua Fedearen Zabalkunderako Erroman zen Franzoni kardinalari idatzi zion, eskatuz misiolari gehiago bidal zitzaten Galla herrialdera, honek Jainko bakarrean, Ama Maria eta Mikel goi-aingeruan sinesten zuenez.

Eskaera hau Antonek San Gregorioren Zaldun gisara zinatzen zuen eta oroitarazten ere Gregorio Handia izan zela VI. mendean ingelesak konbertitu zituenak, eta latinezko esaldi bat azpimarratzen zuen maitekiro, *Non Gallaei sed sicut Galli forent si essent Christiani*.

Beraz, guztiz harrera ona ukan zuen, noski, hala egitea agindu baitzuen Gregorio XVI aitasainduak.

Uztailaren 18an Saka-n sartu zen, Abba Boggibo-ren hainbat traba, trikimailu, oztopo eta eragozpen menderatu eta gero.

1846ko urtarrilaren 18an lortu zuen Bora-ko harkaitzen oinetara iristea, eta urte beraren abenduaren hiruan Gojam-go lurralde giristinoan sartu zenean hemeretzi hilabete ia ezin mugiturik igaro ondoren, iruditu zitzaion iritsia zela

Patri Urkizu

jada sorterrira abiatzeko garaia. Kantak zioen bezala, partitzeko tenorea jin zitzaiola, baina tamalez ez zen hala gertatu.

Zenbait ikerketa burutzeko asmotan zebilen, eta beste lau hilabete pasa zitzaizkion horrelako lanetan oharkabeen. Bestalde gerrillarien buruzagi batek Yajibe—n eskuizkribuak ostu nahi izan zizkion, eta negoziazio eta eztabaida anitzen buruan ozta—ozta lortu zuen berekin eustea.

Adami—n ere egun hobegoen esperoan luzaro bizi izan zen oihanean, txabolatto batean. Hemen gauez behin baino gehiagotan sartu izan zitzaizkion lehoiak eta gerrilariak, dena hankaz gora utzi eta deseginez. Bizkitartean Rare mendiak deskribitzen igarotzen zituen orduak oro.

Hala, ibaiez, herri izenez, hizkuntzez eta mundua endelegatzeko maneraz galdezka eta herrialdeen arteko distantziaz esklaboekin eztabaidatzen ez zen inoiz aspertzen. Kusa—k zioenez, eta euskararekiko antzekotasunak bitxiak ziren, bazen herrialde bat Kambala eta Harusi artean Alaba izenekoa, Urbaraga hizkuntza mintzo zuena. Doqo aldean bazen beste bat Basketa deitua, bertakoak Bask deitzen zirelarik.

Maze Malea—ko jendeek ziotenez, ba omen ziren gizaki ñañoak lurralde urrun batean, eta ea ikusi zituzten galdetu zienean ezetz ihardetsi zioten, baina entzundakoak kontatzen zizkiotela. Arnauld—ek geroago aitortu zionez, ez zuen inoiz bere soldaduen artean horrelakorik entzun, ez zuen horrelako kontuetan sinesten, eta bat Parisera eramateko modukoa ediretean sinetsiko zuen.

Suwro herritarrek elefanteak fletxa pozoinduz hiltzen zituzten, eta zurezko, burdinazko eta kobrezko belarritakoak zeramatzaten, metal hauek kafea, koriandroa eta marfilarekin trukutzen zutelarik. Ez zuten hipopotamo haragirik jaten, zikin zelakoan, eta beren ustetan aztiak Jainkoarekin hitz egiten zuten ortzadarra zeruan hedatzen zenean.

Arruntean buru—oihal beltzak zeramatzaten, baina hilberri zenean berde kolorezkoez aldatzen zituzten.

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

Adami—tik Garjeda—ra pasa zen eta hemen mirakuluzki libratu zen Jibate mendi magalean zanpatua izatetik, ikusi zuelarik Siga—n nola zortzi urtetik behin aldatzen zuten bertako gobernamentua. Hemendik Falle—ra, baina bertako buruzagia zen Yanfa Gudata—k hilabete osoa hantxe eduki zuen alde egin ezinik

Hala eta guztiz ere fatuek lagundu zuten eta mendirik garaiena neurtzeko zoria izan zuen. Walayza deitzen zen hau eta bost mila metrotik gora zen. Liban, Calliha eta Hudru—tik igarotzerakoan jarraitu zuen neurriak hartzen eta horrela Rare mendikateko gailurren altuerak osatzen.

1847ko urtarrilaren 19an Anton eta Arnauld—ek lortu zuten Frantses bandera Nilo Zuriaren iturburu garrantzitsuenean kokatzea, Bobia—ko oihanean, Inarya eta Jimma erresumen artean zegoen lekuan. Ahalik eta lasterrena gutun bat igorri zioten Parisera François Arago adiskide eta maisuari gertakizunaren berri emanez.

Gojam—go lurraldea Antonek 1847ko apirilaren 23an abandonatu zuen behin betiko, eta Abbay ibaia igeri iragan zuen, krokodilorik ez zebilela ziurtatutakoan, zubia hautsita baitzegoen. Gondar—eko misiolari bati esker lortutako paperean ezarriak zituen jadanik karta zehatz zenbaitetan herrien izenak, mendi gailurren altuerak eta ibaien jirabiren neurri guztiak.

Uztailaren hogeita hiruan Etio pian ikusitako zuhaitzik lodienaren, baobab motakoaren, eta *Fatium za jirwadima* deitzen zutenaren ondoan egon zen hedatzen zuen itzalaz baliatuz. Argitu ziotenez Saho—tarrak haren ondoan gertatzen zirenean lasterka eta txistu eginez inguratzen zuten.

Handik bi egunera iritsi zen Massawa—ra, eta hemen bila jina zitzaien eta zazpi urtez ikusigabea zuen anaia Xarles topatu zuen, lehen egunak solas luzeetan iragan zituztelarik.

Patri Urkizu

Amaren kezkek, beste anai—arriben berri, eta nola Julia 1842an Bernard du Cluzeau, Cléran—go baroiarekin ezkondu zen, baina Pariseko abokatu honek eta ahizpak ez zutela seme—alabarik ukan...Kezkaturik bizi zirela denak aspaldian berririk ez ukeitez...

Hona nola Xarlesek kontatu zion berak beste bi anaiak bilatzeko egindako lanak eta izan zituen arazo, buruhauste eta gora—beherak.

Begira, 1846an itzuli nintzenean Pariserat hemezortzi hilabete Espainian eta Portugalen barrena ibili ondoren, ama eta arrebak ezin gebiago keexu aurkitu nituen zu bion berririk ez baikenuen azkeneko bi urteetan. Deliberatu zuen bada gure amak zuen xerkatzera behar nuela abiatu. Laster eginak nituen nere prestakizunak eta adio erran nion besarkada handi bat emanek amari. Ia desesperaturik zegoen ikustean nola hirugarren semea joaten zitzaien aldamenetikan, baina promes egin nion ez nintzela itzuliko zuen berririk gabe, eta zuek bereganatu gabe. Sartu nintzen lehenik Marseillan Erromara joateko, non esperantza bainuen misiolarien artean albisteren bat ukan zezaten. Hona heltzeko bitartekoak behar nituen eneganatu. Franzoni kardinalak abalik eta hobekien errejibitu ninduen eta eraman toki urrunetarik itzuliak ziren misiolariengana. Haien esanetarik garbi hau atera nuen soilik, urliari, sandiari eta berendiari, bati eta besteri galdezka aitzinatu behar nuela eta traba anitz gainditu. Heldu nintzen El Kairo—ra eta hiru hilabetez hizkuntza arabiera estudiatzen pasatu nuen, eta europar bidaiari guztiekin dostatzen nintzen jakitearren zerbait zuetaz. Jerusalemara ziboazen misiolariek esan zidaten Massawa—n topatu zintuztela eta jada gauzak prestatzen ari zinela itzultzeko. Barrot jaunak, Frantziako kontsulak aholkatu zidan Itsas Gorriaren begian ziren kontsulatu eta langile guztiak itaun nitzan, berri galdezka. Hala bada, barku arabe batean sartu eta hiru hilabeteke bidaia egin nuen Nilo ibaiak bigarren jauzi haundiak egiten dituen lekuraino. Gero Keneb—era

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

itzulitakoan gobernadoreak esan zidan Afrikan barnetik iritsitako esklabo tratanteek ziotela, bi gizon zuri azken hilabete haietan Gallas deitzen den herrian sartuak zirenak tokiko erregearen presuner zirela. Lehiatu nintzen berehala El Kairo—ra itzultzen. Hemen artzapezpiku kopto batek esan zidan Adwa eta Aksum—en artean zegoen bere herria utzia zuela azken urrian, garai honetan Galla lurraldeko mugan aurkitzen zirela, eta dirua eskatu zeniola misioari Gondar—era itzultzeko. Suse—ko portuan belauntzian berriaz sartu eta neke luze eta handi batzuen ondotik Massawa—ra ailegatu nintzen. Hau neretzat munduan den tokirik beroena dela, esanen nuke. Eman nion parte uharteko gobernadoreari banuela Patxa Handiaren manu bat, non erraiten zen errezebitua behar nuela izan. Berehala jin zitzaidan erantzuna. Jaitsi nintzen ontzitik eta ixtant baten buruan Halil Bey gobernadorean etxean nintzen. Zutik errezebitu ninduen. Nik Patxa Handiaren agindua presentatu nion, eta ezpainetara eta burura eramanez ondoren irakurri zuen eta esan zidan.— Ene Jaun eta Nagusiak, — Jainkoak eman diezaiola bizitza luzea! —, ezartzen hau ene babesaren menean, ez diat ordainez galdegiten Etiopia deitzen den tokian paratzea baizik, Etiopiako aitzindari handiek niri esan gabe zein probintzietan eta zein puntutan diren hire anaiak eta ea oraino bizirik diren. Habil gure islako zoko batetara, eta behar baitut hitaz kondu eman neure bizia gainean, segizkik ene kontseiluak, eta igurikatzen ene berrikerietan faltarik gabe ekarriko dizkidan albisteak.

Lau hilabetez egon nintzen kostan, izugarriko miseria pairatuz, 45 degretarik 50 degretarainoko beroa sufrituz, denetaz gabetua, ia gaixotua, baina deusek ez zidan amaren agindua betetzeko kuraia galarazi. Azkenean izan nuen berria, bizirik zireten eta luzez preso egon ondoren presondegitik eskapatu ahal izan zenuen, Gondar hirira helduz. Laster beste berrikerietan batzuk jin zitzazkidan esanez nire etorreraren jakinaren gainean zirela eta

Patri Urkizu

nere xerka jin zinela osagarriaren kontrako lanjerretarik kentzeko. Arnould—en gutuna ere errezibitu nuen segurtatzen zizkidalarik berri horiek, eta azken finean hara hemen gaude biok bizirik, Jainkoari eskerrak. A, zer bozkariora eta alegera ukanen duen amak berriro ikusten zaituenean!

Antonek ere bere abenturak kontatuko zizkion, noski, xehetasun handiz, eta etxeratzeko gogo biziz izan arren adierazi zion, azken lan batzuek burutu behar zituela Etiopia barnean, batik bat Gondar—eko komentu batean utzitako eskuizkribu bilduma bereganatu behar baitzuen.

Hona nola kontatu zuen Arnould—ek Xarlesekin 1848ko martxoaren hogeitamarrean izan zuen elkar ikustea eta topaketa:

Ikusi nuen gizon zuria bat zaldi baten gainean nigana zetorrela. Tarte tipitu zenean, neu zalditik jaitsi nintzen eta bark gauza bera egin zuen, ondoren bata bestearengana korrika jo genuelarik. Elkarren ondora iritsi ginenean eskua eman eta begitartera so egin genion batak besteari. Lehen behaketaren ondoren ohartu nintzen nere aurrean neukan gazte hura, haur txiki bat zelarik laga nuen anaia Xarles zela

Antonek ez zuen hartu ahal izan berriro arruta 1848ko otsailaren 29a arte. Tana lakua inguruko xehetasunak eta neurriak osatu eta hobetu nahian zebilen bere erribera linziratsu eta pozoitsuetan, inoiz baino krudelago eta bortizkiago oftalmiak eraso egin zionean. Beraz, bidaia—asmorik gogotsuenari, alegia, Garagara, Lalibela eta Weg inguruetako mendietan barna Tigray—ri jira eder bat emateari, uko egin behar izan zion.

Takkaze ibaiari azken agurra eman aitzin, ordea, pentsatu zuen Buahit mendiaren gailurrera igotzea eta neurri zehatza lortzea.

Igoera 1848ko maiatzaren 13an burutu zuen. Gailurrera iritsia zen eta ordu t'erdi iguriki zuen oinutsik elurrak belaunetaraino, ea hodeiek alde egiten zuten, baina hantxe tinko eta irmo jarraikitzen zuten itsatsita, azkenean laga

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

behar izan zuelarik egoitza hura, bertan jelatu baino lehenago. Bi egun geroago, aldiz, lortu zuen bilatzen ari zena. Lau mila eta seiehun metro garai zen Dajan mendiko zabaldi batean, Ankua bezala bataiatu lekuan teodolitoa ezarri zuen, esan nahi baita, memento hartaraino tresna hark iritsi zuen punturik garaienean.

Itzuli aurretik, ordea, diru kontu mordoxka konpon beharreen zegoen, eta adibidez, Alexandriako agentea zen Briggs—ek 1847ko abenduaren 27an idatzi ziolarik gutun batean erabil zitzakeela 28.500 libera nahi zuen arabera, gutunak, hiru astetan Suez—etik Massawa—ra zuzenean iritsi behar ordez, Aden—dik barrena zortzi hilabete igaro zituen bidean. Eta 1848ko azaroaren bederatzian agente berak idatzitako gutunean dio, Lafittek & Konpainiak bankarrota egin zutenez, ezin zizkiola aipatu liberak fida, eta Londreseko Banka baten bermea beharko zuela lortu.

Azkenean irteera 1848ko urriaren lauean izan zen. Massawa—n enbarkatu zen Jeddah—era zihoan belari batean. Tawylah, Hurmiyl, Al Birk, Atih, Qunfundah, Ras al askar, Al Lyt, Sijah, Abu Sawk portuetarik igaro eta hemeretzian Jeddah—en bertan zen. Hemendik aste bat beranduago bapore ingeles batean enbarkatu eta Suez—etik pasa ondoren azaroaren 2an ostegunez El Kairo—ra iritsi zen.

Hemen Coulomb anaiek zuzentzen zuten Hôtel d'orient—en hartu zuen gela egun batzuetarako, eta Etiopiatik ekarritako poltsa eta gauza gehienak Carlo Pinoren Depositoan utzi zituen egun batzuez, zehatzago esateko, abenduaren lauetik urtarrilaren bukaeran Marseillarantz enbarkatu arte.

El Kairon igaro zituen urtarrila eta otsaila, eta ez oso osasun onez, zeren eta farmaziako kontuak ehun eta berrogeita zortzi liberatara iristen ziren. Azkenean Frantziako P. H. Delaporte eta François Hugues—en alarguna atera zitzaizkion berme gisara eta antolatu ahal izan zituen diru gora—behera zenbait.

Hiri honetatik Jerusalemera Tawalda Madhin, munduan izan zitekeen pertsonarik maitagarriena, hala nola Adula esklaboa, eraman zituen eta etiopiar

jakintsu honen konpainian hirugarren aldiz frantses—amariña hiztegia erreparasatu zuen.

Hemen eraiki zituen ere lasaiago Bagemdir eta Tigray lurraldeetako mapak, zeren ordura arte utzia zuen kalkulu geodesikoen bukatzea, hauek astirik asko eskatzen zutenez, beste ikerketa anitz eragozten baitzioten, Etioipian bertan egin beharrezkoak.

Pozik zen, beraz, ikusteaz nola hamabi urte igaro ondoren Afrikako lurralde kixkali haietan salbatu ahal izan ziren, beste bidaiariek hala nola Domingo malerusak pairatu izan ohi zuten fatu beltzetik.

Arnauld, okasioaren arabera epaile, diplomatiko, gudalozte—buruzagi eta beste izana zen, eta Gojam lurretako zokorik ezkutuenean ere mendebaldeko eragin ezta hedatua zuen, Antoni ere hamaika aldiz lagunduz eta oztupoak garaiaraziz. Herriz herri ibilia zen bere armadarekin, poeten kantuez, tronpetari fanfarrez eta beste musikariez inguratua. Goxoren sendiko batekin, Waletta Rafael—ekin ezkondu zen eta bi seme—alaba ukan zituen. Bat Mikel, bere semetzat jo nahi izan ez zuena, eta bestea Maitena de Kaïswane, Beyrouth—eko monjetan utzi zuena ongi zaindu eta hezi zezaten, eta bertako hilerrian ehortzi zutena.

Bi misio katoliko ezartzen lagundu ahal izan zuten Abbadia anaiek Ipar—Etioipian. Bata iparraldean eta Hegoan bestea.

Ahozko herri tradizioaz edota fisika ikerketaz ohar eta albiste benetan interesgarriak jaso ahal izan zituzten arraza beltzaren etorkia argitzeko baliagarri zitezkeenak.

Etioipiako lege, epai—modu, ohitura eta prozedurez lan luze bat hasia zuen Antonek, Arnauld—en xehetasun ugariz zabaltzen eta loditzen ari zena. Hogeita hamar hizkera etiopiar ikasiak zituen eta zailtasun handiz lortutako hiztegiek orotara berrogei mila hitzetik gora osatzen zuten.

Etiopiar eskuizkribuen bilduma, osatuena bezala jotzen zuen eta Europako liburutegi aberatsenak eduk zezakeen oparoena baino ederragoa. Etioipiako irakasleen hierarkian onartua izan zen, eta bitxiagoa lirudikeena,

ANTON ABBADIAREN ETIOPIAKO BIDAIA

hemen zientziak oso guti aitzinatuak egon arren, bederen doan eta publikoki irakasten ziren.

Aurkitu zituen gizarte honen ikerketan Judea, Grezia, Erroma, eta Erdi Aroko urratsak, aztarnak eta monetak. Eta ikusi ahal izan zuen zertan bilakatzen den nazio bat, erabat baztertua, beren baitan itxia, eta anitzetan boztikeria galgarriaren menpe denean.

Ezezagun edo gutxi ezagunak ziren parajeei buruzko ikerketak liburu lodi batzuen gaia ematen zioten eta frogatzen zuten bere ustea, gerora ustela gertatuko zen arren, hau da, Nilo Zuriaren iturburua Bora mendiko magalean kokatu behar zela, Babya oihaneko paraje basa eta birjina, alegia, inoiz ordura arte gizon zuriak urratu eta ikertu gabeko zokoan.

Frantzia baino handiagoa den lurralde bateko azimut eta latitudeak zehaztea lortu zuen ere. Bidaia luzeek eragindako bozkarioz baina eraberean akiduraz, nekez eta penaz beterik abandonatu zuen Antonek Etiopia, zeren gai eta zio guztiak estudiantzerakoan ohartu baitzen axaetik baino ez zituela ukitu, eta bere ondorengoei sakondu beharko zituztela berak egindako ikerketak, eta beste anitz gehiago ere.

Dena den, inork ez du eskubiderik lana amaigabe utzi duela eta kexatzeko, zeren pazientziaz eta gogo onez beteriko ikerketa guztiek bere baitan daramaten berezko saria, hots, ostertz berrien ikustatzea, eta oraino ezezagun den mugara doan bide luzea erakustea.

Beti ondoren emango dudan errefracu arabieraz oroitzen zen eta aholkatzen zien ere bere ondorengoei, berari asko baliatu baitzitzaion:

*Pazientzia bain handia hartu duzun horrek,
har ezazu, bada, oraino pazientzia!*

Patri Urkizu

Eta Montesquieu—rekin batera konturatu zen ez duela Fortuna jainkosak mundua gobernatzen, pertsonen baldintza eta gertaera guztiek sortarazten dituzten konportamendu orokorrak baizik.

Anton Abbadiak (Ikus Patri Urkizu, *Anton Abbadia, 1810-1897 : biografia saioa*. Bilbao 2002.) Dublinen jaio eta Parisen hil zen zientifikoak badu bere bizitzan une bat abenturaz betea, eta hau gazterik Etiopian 1838tik 1849ra igaro zuena izan zen. Hemen ikus dezakezu bertan igarotako gora-beherak, arriskuak eta zertzeladak, Arnaud-Mixel anaiarekiko istiluak eta Domingo morroiarekin gurutzatu zituen zenbait gutun, hala nola bertako hizkuntzak ikasten eta eskuzkribuak biltzen egin zuen ahaleginak.